

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko maiatzaren 26a · 384 zenbakia



## Jon, ibiliko al gara?

Herrian ilusioa piztu du Jon Salsamendiren itzulera. Arraunetxan eta itsasoan izan da KARKARA Orioko entrenatzailearekin.

**8**  
**Mahai bueltan**  
Orio jatetxea

**11**  
**Akuilua hartuta**  
Ainhoa Mateos

**18**  
**Erreportajea**  
Herri galdeketa

**29**  
**Kritika**  
Erradikalak gara

943831048  
610697668

[www.fotoramiro.com](http://www.fotoramiro.com)

**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

**AEG**  
449€

**SAMSUNG 32"**  
219€

**BOSCH**  
189€

**ETORRI GURE ISKAINTZAK IKUSTERA**

**TIEN 21**

Eusko Gudari, 44 • Telf. 943 83 38 81  
20810 Orio (Gipuzkoa)

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

943 53 64 94 | 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com  
[www.libegarmendia.com](http://www.libegarmendia.com)  
eusko gudariak 35 :: ORIO  
[ Urtaroa Antzokian kaleak ]

*Xapa zapataroa*

*eman beste aukera bat zure zapata eta osagarriei*

Herriko plaza. Orio

**Izaskun Estankoa**

- Tabakoa
- Prentsa
- Eskola materiala
- Opariak

• bitartekotza estandea:  
8:00-13:15 - 17:00-20:00  
• laguntza eta iradoketa:  
8:00 - 13:30

Eusko Gudari, 23-20810 Orio - Tel.: 943 831 212

**cambo** KIDS • STORE

JANTZIAK • JOSTAILUAK • OSAGARRIAK

Nagusia 4 • ZARAUTZ • 943 086 849  
[www.cambo.es](http://www.cambo.es) @camboarrandegia

0-12 URTE

**ROSANA**

-ARGAZKI ESTUDIOA-

lororosanaarruti@gmail.com  
teli: 943 83 56 45

**ARRANDEGIA**

Astelehenetik larunbatera 08.30-13.30    Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

**Kostera**

**Arralak**  
zure arrandegia

**EUSKO GUDARI, 4    943 133 580**

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27

karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea  
kultur elkarteak

**Erredaktore burua**  
Miriam Garcia

**Erredakzio taldea**

Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Olatz Artola  
Lore Berasaluze  
Iñigo Exposito  
Iñigo Gaiton  
Jon Garate  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzquidun

**Publizitatea**

Sonia Albizu

**Ale honetako kolaboratzaileak**

Leire Beldarrain  
Manex Guenetxea  
Iñaki Iturain  
Garbiñe Manterola  
Ainhoa Mateos

**Diseinua**

Saioa Perona

**Banatzailleak**

Ibon Berasaluze,  
Iñigo Fernandez (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berrieman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

## PUNTUA JARRITA

MANEX GUENETXEA (DOINUA: ASTOA IKUSI NUEN)

**Astero joaten zara bertso eskolara.**

Manex, Unax, Oihana  
Amaiur, Enara,  
Ibai, Eric, Torrotxo,  
Lizar, Malen, Klara.  
Gu bertso eskolako  
Ikasleak gara.

Gure misterra dugu  
Xabier Sukia,  
oinak buruan eta  
belarritik kia.  
Marrazkitan ikusiz  
Lazkao txikia,  
etorri nahi baduzu  
badago tokia.



**Hurrengoari puntua: Martin, zu arraunean zer moduz zabilta?**

Publizitatea kontratazeko:  
**Karkara**  
688 859 682 (Sonia)  
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

## Abante!

Egun betea izan zen maiatzaren 7a: ilusioz, arduraz eta pozez betea. Oriotarrok aukera izan genuen libre adierazteko zein etorkizun nahi dugun Euskal Herriarentzat eta 1.502 lagunek eman zuten botoa, eman zezaketenen %31,68k. Bejondeigula guztioi eta mila esker, beste ezeren aurretik, zuen botoarekin autodeterminazio-ariketa honetan parte hartu zenutenoi. Hautesontziak botoz betez, bete-beteko lezioa eman diozue herri honi.

Orain dela hilabete batzuk herri-galdeketa antolamenduan hasi ginen, ez genuen asko espero horrelako erantzunik: adin eta klase guztietako oriotarrak etorri ziren bozkatzera maiatzaren 7an, patxadaz, konbentzimenduz, ilusioz eta pozez. Izan ziren lagun batzuk, botoa ematerakoan, malakoa zekartenak begi ertzean eta, hori ikusita, begiak bete zitzaizkigun guri ere hainbat momentutan. Ederra izan zen!

Herri-galdeketa antolaketan jende askok parte hartu zuen era batera edo bestera: batzuk, esanda bezala, askoz lehenagotik hasita; beste batzuk, berriz, azken aste edo egunetan inkorporatuta; eta mordoxka bat, azkenik, egunean bertan, era guztietako lanak eginez. Ezinezkoa da banan-banan aipatzea hemen; baina guztiei eman nahi dizkiegu eskerrak, bihotz barrutik. Ez

## Laguntzaileen kuotak eta ekaineko KARKARA

KARAKARA proiektua sostengatzen duzuenoi jakinarazi nahi diezuegu laguntzaile kuotak ekainean eta uztailean kobratuko ditugula. Eta, noski, eskerrak eman nahi dizkizuegu babes emateagatik. Zuen aportazioagatik ez balitz ezingo genuke ez eguneroko webgunea elikatu, ezta hileroko paperekoa argitaratu ere. Eskerrik asko laguntzagatik, mila esker proiektuaren parte izateagatik! Bestalde, irakurle guztiei adierazi nahi diezuegu ekaineko KARKARA aste bete aurreratuko dela San Pedro jaiak direla eta. Ekainaren 30ean egin orde, hilaren 23an banatuko dugu aldizkaria etxe guztietan.

dakizue ondo zenbateraino berotu digun barrena zuen prestutasunak!

Aurrera begira jartzea tokatzen da orain. Gure Esku Dagok ekitaldi garrantzitsu bat antolatu du ekainaren 10erako Bilboko erdialdean, 17:30ean hasita. Bertan aurkeztuko dute 'Herri-tarran Ituna' izeneko ekimena eta aukera ezin hobea da berriro aldarrikatzeko herri honek eskubidea daukala bere estatus politikoari buruz erabakitzeke. Bilbon indarrak bilduko ditugu berriro datozen erronketarako. Zatoz

zu ere eta elkarrekin egingo dugu bide eder hau. Abante beti! ■ **Baliza Elkartea**

## Itsasoan hildakoak gogoan

Apirilaren 22an Udalak plaka bat jarri zuen berriz barra-muturrean. Plakan, eremu hartan itotakoen zerrenda dator. Aurreko Karkararen azken orrialdean dator plaka eta izenak. Baina erriean eta itsaso zabalean ere oriotar askok galdu dute bizia. Haiek ere gogora ekarri nahi izan genituen aurreko Karkaran. Hildako haiei buruzko informazioa ahoz aho jasoa da, hein batean; eta, jakina, informazioa ez zen osoa eta, gainera, oker batzuk zituen. Oraingo idatzia gabeziak osatzeko eta okerrak zuzentzeko ahalegina da, argibideak eman dizkiguzuen herritarroi esker. Jakinda, hala ere, orain ere gaia ez dela guztiz osatuko.

Historian zehar uretan galdu ditugun guztiak gogoan: In Memoriam!

**Jose Ignacio Etxeberria Garmendia**, Gorriyanekoa. Piedad Etxeberriak ondo gogoan du bere aita itsasoan galdu zela, eta umezurtz geratu zela 11 hilabeterekin, eta anaia Jose bost urterekin. Ez zuen aita ezagutu, baina badaki gizon hura Pasaiako arrasteko ontzi batean zebilela arrantzale, Urkiola itsasontzian, eta neguko egun beltz batean galdu zela -1951ko otsailaren 25ean-, Frantzia parean. Bakailaotan

ETXEKO BEREZITASUNAK  
ARRAIN ZOPA  
PARRILA  
**BODEGON SARASUA**  
ERRETTIGIX  
Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

HERRIKO PATXI OLIDEN  
Herengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...  
**PATXI OLIDEN**  
Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

EGIN ZAITEZ  
**Karkara.eus**  
KOMUNITATEKO KIDE

Ille apaindegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat  
Eusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**URAITZ**  
Lurrindegia  
jantzi-argariak  
Enakia, 3 · Tfwn 943 83 18 97

zebiltzan; sarearekin kateatuta itsasora erori zen. Erortzen ikusi bai, baina ezin izan zuten atera.

**Juan Jose Lizaso Lertxundi.** Arrantzale izan zen bizitza osoan. 1949ko irailaren 5ean hil zen, itsasoan, Amesti baporean, 53 urte zituela. Haren iloba Martinen seme Xabier piano-jolearenganaino iritsi da gizon haren oihartzuna: *Zumaia parean zirela, sekulako enbata atera zuen, baporea irauli eta denak uretara erori ziren; lehorra igeri zihozela, kazkabarrak Juan Jose kopetan jo eta konortetik gabe utzi zuen, eta ito egin zen. Anaiarekin batera, Juan Josek ekarri zuen Oriora lehenengo baporea; horrek ekarri zion bukaera trainerua arrantza-ontzi moduan erabiltzeari, Ipar izena zuen baporeak.*

**Jose Michelena Zumeta.** 1954ko martxoaren 26an hil zen, 58 urterekin, *accidente de mar* dio Orioko erregistroko haren fitxak.

**Mitxelenatarrak** sei senide ziren, lau mutil eta bi neska. Lau mutiletatik bakararra hil zen etxean, Juan Mari. Jose Migel eta Jose, itsasoan, eta Teodoro fusilatu egin zuten falangistek gerran, 1936an. Jose Migel da barrako plakan agertzen dena. Plakan: **Jose Manuel Lazaro Mitxelena** -1922-02-14-.

**Francisco Sarasua Aia.** San Nikolas baporeko arrantzalea sarea biltzeko lanetan zebilela, makinilak jota hil zen itsasoan 1948ko otsailaren 18an.

**Juan Jose Solaberrieta Bengoetxea** -Lino-, 1949ko ekainaren 10ean hil zen, San Nicolas baporean, makinilak harrapatuta. *Fractura base del cráneo en accidente de trabajo* dio erregistroko haren fitxak.

## Okerrak zuzentzen

KARKARAREN 353 zenbakian, apirilekoan, 1936-64 kurtsoko ikasleen argazki bat argitaratu genuen Argazki Mundiala atalean. Irudiarekin batera zihoan testuan, bertan agertzen ziren gaztetxoek izenak aipatu genituen. Oker bat egin genuen, ordea. Zutik dauden artean, eskuinetik hasi eta bosgarrena, Santiago Gurrutxaga zela jarri genuen, baina bere izena Santiago Ibirriaga *Maxpili* da. Barkatu okerrak.

troko fitxak.

**Blas Urkizu Arregi.** Txikotak buruan emandako kolpearen ondorioz hil zen 1956ko abuztuaren leian, haren seme Anjelek ondo gogoan duenez, nahiz eta artxiboko fitxak *angina de pecho* dioen. San Antonio baporean zebilen, arrantzale, 45 urteko gizona, Maria Franxiska Xordoren senarra.

**Luis Mari Manterola Intxauspe.** Uretara erori zenean, Paulo VI sarea botata zegoenez, ezinezkoa izan zuten jasotzea, eta Aingeru Guardakoako marinelek igo zuten, baina ez egun batzuetara, uanean bertan baizik. Bere onera ekartzen ere saiatu ziren, ahoz ahoko arnasketaren bidez, baina alferrik.

**Tomas Mujika Lizarazu.** 1982ko abuztuaren 19an galdu zen, ez uztailan -Luis Mari eta Tomasen argibideak Igor Manterolak eta Olga Mujikak emanak dira-.

**Juan Jose Olano.** Usurbilgo emakume batek esan digunez, Juan Jose usurbildarra zen, ez aginagarra; eta Angulas Mayozen inguruan hil zen, ez Intxaurreta parean.

Mutil marokoar gazte baten heriotza ere gogorarazi digu herritar batek. Orain urte batzuk gertatu zen Orioko barran, poliziengandik ihesi zihozela uretara salto egin eta bertan ito zen. Haren heriotza ez dago jasota barrako plakan.

Aurreko Karkaran, beste artikulua batean -17. orrialdean-, 1979ko argazki bat eman genuen eta orduko arrantzari buruzko idatzi bat. Artikuluan, orduko baporeen zerrenda. Jon Mujika Montserrat Berria baporearen patroiak gogorarazi digu Orioko bi bapore falta direla zerrendan: Montserrat -haien familiakoena eta Genovatarrena- eta Jorge Oteiza -Eusebio Aldaz Xuairena-.

Monserrat Berria baporearen aurrekoak Nuestra Señora de Monserrat izena zuen. Izenak gogora dakarkigu 1936an Francoren tropak herrian sartu aurretik Oriotik ihesean joan zen genovatarren familiak bizi izan zuen odisea. Ibilaldi latz hartan urte eta erdi pasatu zuten Bartzelonako Montserrat santutegian eta egonaldi hari zor diote izena baporeek, haien familiarren gerroztikakoek. Jorge Oteiza izena berriz, Xuaik -gizon irekia bat baldin bazen hura zen!- Oteizarekin zuen harremanari.

Mila esker hitz hauek idazteko informazioa eman diguzuen gutztoi. Eta barkatu okerrak. ■ **Iñaki Iturain**

## ■ EZKONDUTAKOAK

- Aintzane Olaizola Lopetegi eta Mikel Anton Akizu, Orion, maiatzaren 12an.
- Amai Iturzaeta Orbañanos eta Javier Gallego Aldalur, Orion, apirilaren 29an.
- Santiago Aramendi Eizagirre eta Lierri Irizar Lazpiur, Orion, apirilaren 29an.
- Jon Joseba Urresti Agote eta Amaya Garmendia Goñi, Orion, apirilaren 28an.
- Joaquin Tomas Rueda Garcia eta Maria Blasco Martinez, Orion, apirilaren 27an.

## ■ JAIOTAKOAK

- Aimar San Sebastian Trincado, Orion, maiatzaren 10ean.
- Aia Laassiri, Orion, maiatzaren 9an.
- Alba Varela Quiñones, Orion, maiatzaren 8an.
- Nora Huegun Lizaso, Orion, maiatzaren 6an.
- Izaro Aranalde Altuna, Orion, maiatzaren 1ean.
- Urko Alguacil Larrañaga, Orion, apirilaren 29an.
- Yerai Zaldúa Manterola, Orion, apirilaren 28an.

## ■ HILDAKOAK

- Mertxe Gallot Lertxundi, Orion, maiatzaren 2lean. 57 urte.
- M<sup>a</sup> Antonia Manzidor Katarain, Orion, maiatzaren 6an. 75 urte.
- Jesus M<sup>a</sup> Esnal Kortajarena, Orion, maiatzaren 6an. 71 urte.
- Xabier Telleria Osoro, Orion, maiatzaren 3an. 87 urte.



Literatur lehiaketako sari banaketa. KARKARA



Giro ederra izan zen Asentzio ferian. KARKARA



Minutu gutxitan bukatu ziren Berri Txarraren kontzertuko sarrerak

# Berri Txarrik ez

“Berri Txarrak taldeak emango duen kontzerturako sarrerak hegan egin zuten txorrotxioak bailiran, eta jende asko geratu zen txarteik gabe.. *C’est la vie!*”

**M**aiatza indartsu hasi genuen oriotarrok. 1502 herritarrek hartu genuen parte Gure Esku Dagok antolaturiko herri galdeketan, udaberriko eguzki ederra lagun. Ez da makala gero! Zorionak Baliza elkar-teari egindako lanagatik, autodeterminazio ariketa posible bihurtu eta jarritako helburua betetzeagatik. Bejondeizuela!

Galdeketa baino egun bat lehenago, larunbarekin, eskola-umeen literatur sariak ere banatu ziren. Kontatu digutenez, idazle harrobi ederra dugu herrian... Jakin gaztetxook, Karkarako ordenagailu, orri eta tinta litroak nahieran erabil ditzakezuela, ondo etorrriko zaigu haize fresko pixka bat erre-dakzioan!

Asentsioferia ere izan genuen Aian duela gutxi. Idi, asto, oilar eta abarren artean, bufaloak, Eskoziako behia, lau adarreko aharia... Mundua painelua omen, bai horixe! Eta animalia benetan berezia, baita, Amorante musikaria. Jo ta ma utzi zuten kultur etxeko kontzertura gerturatutako oriotarrak, txundituta, bere musikaren izaera berezi eta mami ederrarekin. Luxu hutsa bertan izan ziren 45 ikusleentzat!

Berri txarrik gabe amaitu dugu hila KARKARAN, eta ziur asko, zuetako askok ere bai. Berri Txarrak taldeak Etxeluzen joko duen kontzerturako sarrerek hegan egin zuten txorrotxioak bailiran, eta jende asko geratu da txartelik gabe... *C’est la vie!* Gaztetxeak merezi du halako jende blaitu bat, ze krixto. Ea kontzertuak Etxeluzeren arima indartu eta gazte mugimenduari indarra emateko balio duen. Gozatu eta egin oihu arima urratu arte!

# Joaten al zara Zaharren Babeslekuak antolatutako irteeratarara?



“Galiziako bidaiia oso polita iruditzen zait”

**B**ai, asko gustatzen zait Babeslekuak antolatzen dituen irteeratarara joatea.

Jana eta horrelakoengatik baino, ikasten dudanagatik gustatzen zait joatea. Gauza asko ikasten ditugu: arteaz, ohiturez...

Laster Laredora goaz, hirugarren urtea da hara joaten garela. Ondo legoke beste leku batzuetara ere bidaiak antolatzea. Nafarrora, adibidez, gustura joango nitzake.

Galiziako bidaiara ere joateko asmoa daukagu. Bidaiia oso polita iruditzen zait, interesgarria. Ondo antolatuta dago eta asko gozatuko dugula uste dut.

**Pilartxo Egia**



“Oso gustora joaten naiz egun-pasatarara”

**B**ai, badut ohitura. Hurrengo hilean, adibidez, Laredora goaz.

Horrelako egun-pasatarara joatea gustatzen zait, baina bidaiia luzeagotara ezin dut. Irailean galiziara biaia antolatu dute eta hara ez naiz joango, hankagatik. Asko ibili behar izaten da eta nekatuta amaitzen dut.

Oso gustora joaten naiz beti. Hala ere, proposamen bezala, urtero irteera berdinak ez errepikatzea eskatuko nuke. Laredo asko gustatzen zait eta urtero errepikatzeak ez dit axola, baina besteetan barietate pixka bat eskertuko nuke.

Urtero sagardotegian antolatzen duten bazkarira ere joaten naiz.

**Maria Angeles Ostolaza Maritxalar**



“Lehen asko joaten nintzen, baina orain ezin dut”

**L**ehen asko joaten nintzen, baina orain ezin dut. Ez naiz gauza ibilbide horiek egiteko. Sagardotegian eta hondartzan ematen diguten bazkarira joaten naiz, baina herri-kanpora eguna pasatzera ez naiz joaten.

Bere garaian asko joaten nintzen. Elizatik antolatzen zituzten irteerak herritarrentzako. Gero babesleku hasi zen eta horietara ere joaten nintzen.

Nafarro aldera joaten ginen asko, Elizondo ingurua, adibidez. Baita Zaragozara ere. Apaizarekin joaten ginen, beraz, eliza eta ermita ugari ikusten genituen.

**Lurdes Mancisidor Agirresarobe**

**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa  
> Hileta zerbitzu orokorrak  
> Zerbitzu iraunkorra

**Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxe-ko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

# “Geroz eta gutxiago egiten dugu sukaldean”

## Itziar Olasagasti San Sebastian

### Arraunlariaren udako entsalada: pasta, oilasko bularkia eta tomatetxoak



#### Osagaiak

Pasta, fusili edo espiral formakoa, 80-100 gramo pertsonako.  
Oilasko bular zatiak, zati txikitan.  
*Cherry* tomateak.  
*Dijon* mostaza, kutxarila bat.  
Olio.  
Ozpina.  
Piper hautsa.

#### Edaria

Ura, naturala.

#### Nola egin

Denetik eskaintzen digu platerak: pastak karbohidratoak, haragiak proteina garbia eta tomateak bitamina eta mineralak. Koloredun pasta hautatu ohi du, begietatik ere jaten baita. Elkarrekin egosi ohi ditu pasta eta oilasko bular zatiak. Txukatu, hozten utzi eta ontzian nahasten ditu tomate *Cherry*ekin, azken hauek erditik zatituta. Vinagreta da sekretu bakarra: mostaza dauka, ona behar du izan, kristalezko potekoa. Kutxarila bat mostaza, olio eta ozpin pixka batekin. Dena nahastu eta beste osagaiak gehitu. Piper hautsa ere gehitu, bizitasuna ematen dio.

#### JON AGIRRESAROBÉ

Adinez zaharragoak badira traineru horian, baina 2010. urtean txalupa uretaratu zenetik tostartean ikusi dugu Nadeth Agirrrerekin eta Garazi Olidenekin batera. Hamaseigarren denboraldia du Itziar Olasagastik, “bizitza erdia baino gehiago” darama arraunean. Giza Elikadura eta Dietetika graduatuak udan dezentetan prestatzen duen otordua ekarri digu. Lan ibilbidean eten bat egin eta Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena ikasten ari da aurten. Ekaina da eta traineru denboraldia hasteko desiratzen dago.

**Giza Elikadura eta Dietetika ikasia zara. Langai ere izan duzu. Han eta hemen sarritan entzuten dugu gizartean biderkatzen ari direla gizentasun kasuak.**

Hala da. Ez da pisu kontua bakarrik. Gorputzaren konposizioa zaindu behar da, grasaren ehunekoa, gehienbat. Ehun kiloko pertsona osasuntsu egon daiteke. Anekdotak hau askotan gogoratzen dut: Amerikarrek Vietnameko gerrarako herriarrak hautatzeko IMC indizea erabili zuten. Hona hemen ekuazioa: pisua zati altuera metrotan ber bi (kg/m<sup>2</sup>).

Kanporatu egiten zituzten hogeitabostetik gora ematen zutenak. Alegia, futbol amerikarrean jokatzeko zuten mutil gihartsuak ez ziren gerrarako balekoak. Grasa gutxi izan arren pisua zutelako.

#### Zein dira gizentasunaren kausak eta ondorioak?

Gizartea lodiagoa da egun, ikerketek garbi diote. Arrazoi nagusiak bi dira: elikadura eta sedentarismoa. Sukaldean geroz eta gutxiago egiten dugu: gure amonak pasatzen zuten denboraren hamarrena pasatzen dut nik. Aurrez prestatutako jakiak erabiltzen ditugu geroz eta gehiago. Gainera, dena da refinatua edo findua, ogia adibide nabarmenena.

Loditasuna, hipertentsioa, kolesterola, osteoporosia... asko dira ondorioak. Prebentzioan jarri behar dugu arreta. Parera dator kit duela gutxi Dietisten Elkarteak Urkullu lehendakariari egin zion galdera: *Noizko dietista eta nutrizio adituak Osakidetzan?* Gaur egun ez dago. Urkulluk erantzun zuen ez direla beharrezko, beste espezialitate bat sartu ordez egokiagoa dela medikuak eta erizainak formatzea.





Aurten ere herriko traineruan ikusiko dugu Itziar Olasagasti. Lehen estropada ekainaren hamaikan izango dute, Lekeition . KARKARA

“Gizartea lodiagoa da egun, ikerketek garbi diote. Arrazoi nagusiak bi dira: elikadura eta sedentarismoa.”

“Luzea izango da aurten-go. Hogeitalau estropa izango ditugu.”

“San Juan oso indartsu ikusten dut: jende ona inguratu zaie eta koadrila zabala dute, arraunlari asko eta onak.”

#### **Presa izaten dugu kiloak galtzeko.**


Garrantzitsuena, ordea, grasa galtzea eta elikadura ohitura osasuntsuak hartzea eta mantentzea da. Pisua azkar galduz gero laster berreskuratuko duzu. Astean kilo bat baino gehiago ez da komeni. Ez da kontua denboraldi batean zorrrotz jardutea, epe luzean iraungo duten ohiturak hartu behar dira. Gure ofizioan dagoen intrusismoak ez du asko laguntzen: ikastaro batekin aditu bihurtzen da jendea, telebistan, sarean eta frankizietan argaltzeko dieta eta produktu ugari saltzen dira. Jendea nahasteko besterik ez dute balio.

#### **Arraunean asko zaintzen duzue pisua.**

Aurten negua ezberdina izan da. Santi Zabaletarekin osorik egin dugun lehena izateaz gain, Rafa Gonzalez de Txabarri izan dugu ondoan prestatzaile fisiko lanetan. Beatriz Manchon piraguista olinpikoa daukagu jana zaintzen laguntzeko. Azken bi urtetan garrantzi handia eman diogu elikadurari. Dietak baditu bi garai: neguan proteinak eta udan karbohidratoak lehenesten ditugu. Estropada garaian garrantzitsua da bezperako afaria edo bazkaria, gorputzak asimilatzeke astia behar baitu. Makarroiak hutsak jaten ditugu askotan, oilasko bularkia eta arraina gero. Halere, proposatu berri dizuedan entsalada eta antzekoak dira ohikoek gure etxean

#### **Badator arraun denboraldia. Avante!**

Luzea dator aurtengoa. Hogeitalau estropada izango ditugu. Ekainaren hamaikan Lekeition izango dugu lehen testa. Gipuzkoako Liga astebate geroago hasiko da Deustun. Euskotren Ligarako sailkapen estropadak Orion eta Donostian izango dira, uztailaren zortzian eta bederatzian. San Juan oso indartsu ikusten dut: jende ona inguratu zaie eta koadrila zabala dute, arraunlari asko eta onak. Hibaika ere kontuan hartu beharko dugu, aurkaririk ez da faltako. Gu iazko tanke-eran gabiltza, dozena erdi alta eta baja izan ditugu.



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083  
FAX: 943 571 190  
lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO  
ABESLARI, 1  
20810 ORJO



**AIRDATZA modas**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORJO

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK



**ROSA**

GARBINE ARRILLAGA  
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL: 943 13 19 41

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAKO

*Garbine Arrigi*

*Moda eta osagarriak*

*Herrero plaza, 5*  
*635 706 265*

*paupantzen goizez zabaltzeko!*

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa



**argine**

35eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orjo  
943 134 889 [argine/jantziak](#)



**Zaragueta Herri Eskola Orjo**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

*Lizaso dekorazioa*



**Tf:**  
**943 83 07 84**

**Faxa:**  
**943 24 87 18**

**Eusko Gudari, 48**



**Sagasti LEIHOAK**

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 ORJO (Gipuzkoa)

obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
erakinen mantenua



**XS** arkitektura

borja agirresarobe lopetegi  
herriko-barra 6, behea  
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
[xs@xsarkitektura.com](mailto:xs@xsarkitektura.com)

**PERTSIANAK**

A K O M A Z



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**LUXARBE**  
*igeltseritza*

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**MENDIZABAL AROZTEGIA**

*Neurriko armariek eta egurreak*

943 831 175  
645 708 491  
[mend@aroztegi.net](mailto:mend@aroztegi.net)

Altxeri bidea  
8erri-Aizal etxea  
20810 Aizal-Orjo

**JON ANDER MAIZA AROZTEGIA**



**LEIHO ISOLATZAILEAK  
PVC - ALUMINIOA**

690 99 39 32 / 943 30 07 88

ventanasmaiza@gmail.com  
[www.carpinteriamaiza.com](http://www.carpinteriamaiza.com)  
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORJO

**ZINKU**

Igeltseritza orokorra  
Eusko egoera mola guztiak  
labreak, batri gelak, igeltseria...

Ander Zinkunegui  
667 740 279

# Mediterraneoan hilobi



Ainhoa Mateos

**Mundua aztoratu zuen argazki hura albistegi guztietako titular izatera iritsi zen. Baina, nor gogoratzen da jada Aylan Kurdir?**



gogoratzen al zara Greziako hondartza batean hilda azaldu zen haurraren argazkiak? Munduko txoko guztietara iritsi zen, bihotz askotako atea zeharkatu zuen. Hala ere, ziurrenik ez zara gogoratu bere izenaz, ordutik halako irudi asko eta asko iritsi baitzaizkigu.

Aylan Kurdi zuen izena eta 3 urte zituen. Galtza motz urdinak eta kamiseta gorria soinean zituela agertu zen hilik Greziako hondartza batean. Espedizio berean hil ziren bere ama eta 5 urteko anaia ere. Baina, urperatze horretan beste bost haurrek ere galdu zuten bizia. Mundua aztoratu zuen argazki hura albistegi guztietako titular izatera iritsi zen. Baina, nor gogoratzen da jada Aylan Kurdir?

II. Mundu Gerraz geroztik gertatu den errefuxiatu krisi handienari aurre egiten ari gara. Iazko urtean 5.000 lagun inguru ito ziren itsasoan; aurten 1.316 dira dagoeneko. Hildakoen artean ditugu Aylan Kurdi bezalako haur asko eta asko. Baina egoerak ez du etenik, pasa den astean 8.000 lagunetik gora erreskatatu zituzten itsasoan.

Iristea lortzen dutenen kalbarioa ez da lur hartzean amaitzen. Euren herrialdeetako bonbetatik ihesi, laguntza eske datoz Europar Batasunera. Oztupoak baino ez dizkiegu jartzen bidean. Aterpea eskatzen diguten errefuxiatuei harresiz inguraturiko gaztelu eskuraezina aurkeztu diegula irakurri nion Ane Irazabali. Egia besterik ez dio, harresiz josten ari baikara Europa. Legezko bideak itxi zaizkie, saihesbideak erabiltzera bultzatuz. Eta harresirik ez den herrialdeen aduanetan kontrolak areagotu dira. Are gehiago, aterperik gabeko lur kanpalekuetan bizirautera behartzen ditugu.

Bien bitartean, mafiak eta trafikatzailak egoera honi probetxua atera nahian dabilta. Kanpalekuetatik irtetea amesten duten horiek edozer emateko prest agertzen dira, eta ondorioz, areagotuz doaz emakumeen aurkako eraso eta haurren esklabutza kondenak.

Ez gaitezen bada egoeraz ahaztu. Arazo ekonomiko eta geopolitikoengatik sortutako gatazka honek indarrean jarraitzen du. Mediterraneoak hiltzen jarraitzen du.



Miriam Garcia

## R. Mutt

New York, 1917. Marcel Duchamp eta beste bizi gizon Brodway-tik pasatzean dabilta, berriketan, inongo helmuga zehatzik gabe. Halako batean iturgintza denda baten aurretik pasa eta barrura doa Duchamp, artista frantsesa. Besapean pixaleku bat duela irteten da dendatik; etxera joan, buruz behera jarri eta izen bat margotzen dio pintura beltzez: R. Mutt. Izenez bat ere jarri dio: Iturria.

Artista Independenteen Elkarteak antolatutako erakusketan parte hartzeko aurkeztu zuen, Mutt-en izenean. Estatu Batuetan ordura arte izandako arte moderno erakusketa garrantzitsuenak hura, eta Duchamp bera hautaketa batzordean zegoen. Elkarteak atzera bota zuen lana, adar jotze bat zelakoan, nahiz eta Muttek erakusketan parte hartzeko baldintza bakarra bete izan –izen-emateko bost dolarrak ordaintzea–.

Lan originala ez zen sekula jendaurrean egon, baina galeria bateko jabeak argazkia atera zion. Gaur egun artelan horren hamabost kopia daude munduko arte erakusketetan zabaldua.

Pilaka produzitutako produktu bat artelan bihurtu zuen Duchampek, eta establishment-ari barre egin zion aurpegira. Gaur egun lan hori ikusgai dagoenean arte-adoratzaile ugari inguratzen dute, lepoa luzatuta, aurpegi serioarekin, guztia primeran ulertuko balute bezala.

Ez dakit zuek, baina nik, gaur egun ere horrelako *arte-adoratzaile* mordoak ikusten ditut kalean, dena dakitenak gauza askori buruz.

*edariategia*  
**ANTILLA**  
*jatetxea*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

**Carmen eta Txomin**  
 ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**HAIZE BERRI**  
 taberna-jatetxea-kafeategia

Plater konbinatuak,  
 bokalok,  
 hotburgesak,  
 raziok,  
 eguneko menua...

*ostiralean  
 pintxo  
 potea!*

eta etxera eramateko  
 zerbitzua!

**943 831 623**

Oriko kaledegian, Erbera 1

**SU  
 KIA**  
 TABERNA, JATETXEA

On aghi eta geru... harta KOPA eta TOPA!

- DILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TEL. 943 832 128  
 AGARDONEN 36, 1. BARRIO

*Portu*  
**ERRETEGIA**

Santo Erreka Auzoa, 2/3  
 943 89 24 34  
 20809 AIA-ORIO

*luzatutako barneko aldetan  
 pintxo erabakigarriak egoten dira*

**ITZALA**

*kartelak jokatzen  
 auzoan*

tel. 943 83 12 59

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

**KOLON TXIKI**  
 ostiralean  
 jatetxea

Herriko Euzarantz, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

**ARISTERRAZU**  
 jatetxea

Andatza auzoa - AIA  
 Tel. 943 83 45 21

**ASADOR  
 XIXARIO**

Lurko Grotario Kalea, 2  
 Tel.: 943 830 019 - ORIO

**kutixi**  
 kafeategia  
 GOSARI GONDOAK

Antzaga 9, 20810 Orio  
 Tel. 943 13 13 17

JATETXEA  
**Galerna**

Antillako  
 Hondartza 5  
 20810-Orio  
 Tel.: 943 89 04 16

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176  
 Herriko euzarantz

*lzozki naturalak - Opilak*

**arkaitz taberna**  
 orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
 Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

**PIZZERIA**



**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46



# “Harrigarria da garunak hezkuntza ezberdinak koordinatzeko duen gaitasuna”

## **Jon Andoni Duñabeitia**

Psikologian Doktorea eta neurozientzialaria

Jon Andoni bilbotarra da, eta bospasei urte daramatza Orion bizitzen. Donostiako Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) zentroan egiten du lan, garuna eta hizkuntzen arteko harremanak aztertzen.



PEDRO MARTINEZ

## IÑIGO GAITON

Mila zereginekin bizi da Jon Andoni Duñabeitia (Bilbo, 1981) neurozientzialari bizkaitarra. Miramongo BCBL zentroan alfabetizazio eleanitza ikertzen duen taldearen ardura du, hitzaldi dezente ematen ditu, eta eskoletan ere jarduten da zientziaren bidez garatutako ikasketa metodoak txertatzen.

### **Nolatan, bada, Orion?**

Bilbotik egunero joaten nintzen Miramonera, eta autobideko zubitik Orio ikusten nuen. Hondartza aldeak atentzioa pizten zidan, eta nire golkorako nion *bizitzeko leku ederra behar du horrek...* Pisu bat alokatzeko aukera suertatu zitzaidan, eta hementxe nago, oso gustura.

### **Nola iritsi zinen neurozientziara?**

Magisteritza ikasi ondoren, psikopedagogian lizentziatu nintzen. Gero, neurolinguistika eta psiko hizkuntzalaritzan ikertzeko aukera eskaini zidan Valentziako unibertsitateak. Bertan lanpostu iraunkorra izateko Doktore titulua eskatzen zuten, eta hori Tenerifeko La Laguna unibertsitatean egin nuen.

Psikologian Doktore titulua atera ostean, Eusko Jaurlaritzak BCBL zentroa zabaldu zuen Donostian, eta bertan neurozientzialari gisa lan egiteko aukera suertatu zitzaidan.

Dagoeneko bederatzi urte daramatzat bertan.

### **Zer duzu ikergai nagusi?**

Garunak hizkuntza bat baino gehiagorekin lan egiteko duen gaitasuna aztertzea.

### **Donostiako BCBL zentroak ba al du sonarik nazioartean?**

Bai, punta puntakoa da. Ehun lagun inguruk egiten dugu lan

“Zientziak oraindik ez du argitu elebidun eta elebakarren garunak desberdinak diren”



KARKARA

bertan, eta taldekide asko atzerritarrak dira.

#### **Zein departamentu da zurea?**

Alfabetizazio eleanitza lantzen duen saila. Hamar langileko talde baten ardura dut.

#### **Umetan helduaroan baino errazago ikasten omen dira hizkuntzak. Zer dio zientziak horretaz?**

Bai, baina haurra jaio eta 10-15 hilabete bete arteko tartean bakarrik. Gero, adin bakoitzari dagokion metodoa egokituz gero, berdin dio 4, 15, 30 edo 50 urte izan, gaitasuna antzekoa da.

#### **Hara...**

15 hilabete bete bitartean, haurrek garuneko *leihoak* zabalik izaten dituzte entzundako fonemak (letren soinuak) modu naturalean barneratzeko. Hortik aurrera, *leihoa* itxi egiten da.

#### **Txikitatik Orion hazitako herritar gehienak elebidunak dira. Bi hizkuntza jakiteak komunikatzeko dituen abantailaz gain, garunaren garapenari ere laguntzen dio?**

Elebidunen abantailaren inguruan mito asko daude. Zientziak ez du argitu oraindik elebidun eta elebakarren garunak desberdinak diren edo ez.

#### **Zahartzaroan hitz egiten uzten hasteak Alzheimerrarekin edo beste neuroendekapenezko gaixotasunekin lotura zuzena duen aztertzen ari zarete.**

Elebiduna izateak Alzheimerraren lehen lauzpabost urtetan sintomak ekiditen laguntzen zuenaren ustea zabaldu zen, baina zientziak oraingoz ezin izan du hori frogatu.

#### **Dibulgazioan ere jarduten zara.**

Bai, hitzaldi asko ematen ditut BCBL zentroan egiten

duguna zabaldu eta herritarrei zientzian inbertitzeak duen garrantzia azaltzeko.

#### **Zein arrazoi izan ditzake herrialde batek krisi garaian zientzian inbertitzeko?**

Gizakiok ondo funtzionatzen duen garuna daukagu, baina tarteka apurtu egiten da, ezta? Ba konpondu ahal izateko, nola funtzionatzen duen ulertu behar da lehenik, ikertu, eta hori ez da posible inbertsiorik gabe. Osasunarekin zerikusia duen adibide horretaz gain, gehiago ere badira.

#### **Azken urtetako iraultza digitalak eragin du aldaketarik garuneari?**

Bai, aldi berean arreta gauza askotan izateko gaitasuna gartu dugu, eta garuna horretara egokitu da. Bestalde, gure aurreko jenerazioek baino hitz gutxiago dakizkigu, hizkuntza kalitate eskasagoa dugu.

#### **Zein helburu dituzu etorkizunari begira?**

Zientziaren bidez garatutako metodoak bizitza errealean txertatzea. Oraintxe, Aiako Lardizabal eskolan ari gara lanean, ikasleei hitz egiten, irakurtzen eta idazten irakasteko modu eraginkorrakoak bilatu nahian.

#### **Azken urtetako iraultza digitalak eragin du aldaketarik garuneari?**

Bai, aldi berean arreta gauza askotan izateko gaitasuna gartu dugu, eta garuna horretara egokitu da. Bestalde, gure aurreko jenerazioek baino hitz gutxiago dakizkigu, hizkuntza kalitate eskasagoa dugu.

#### **Zein aurkikuntza zientifikorekin amesten duzu?**

Hizkuntza berri bat ikasteko metodo pertsonalizatu eta eraginkorrena topatzearekin.

# azkue

## karrozeria



Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com

**GARMENDIA**  
HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
informacion@garmendiagestion.com

Joana Murgiondo  
Aseguru-agenzia

ASEGURUAK

C C I  
CARASA, CILVESTI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

# Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600  
688 714 869

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria

Endala Erparantza, 1  
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

Tf: 943 130 438

iturgintza - Berogintza

Birkata Kalea, 4  
20800 Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es

# URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskaInet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

# Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93, 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01, 656 78 29 99

# TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
Gertuko Tailerra

# ANOBA TXIBI S.L.

## KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

# IGLESIAS SARRAILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascarrajaeros@yahoo.es  
ZOBIO ORIO

24 orduko zerbitzua

- ATEAK INKORTZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA





Orain txiki-txikitatik ikasten dute igeri egiten neska-mutilek. KARKARA

# Umea putzura!

## Oroimenaren kutxa

**O**riko historian jende asko erori da uretara, erriotan. Ibaiak erakarmen handia izan ohi du, ume jendearentzat batez ere. Moilak ertza du, amildegia bezala, eta han zuhur ez dabilena erori egiten da. Arrisku hori dago. Haurrekin erne ibili behar da. Gaur egun ia denok dakigu igeri egiten, orain igerilekua daukagu eta han ikasten dute haurrek. Garai batean asko eta asko ziren ez zekitenak, baita arraunlarien eta arrantzaleen artean ere.

Zoritxarrez, uretara eroritako batzuk ez ziren bizirik atera. Horien berri eman genuen aurreko KARKARAN. Zorionez, askotan gertatu da baten batek haurra uretara erortzen ikusi, putzura salto egin eta handik ateratzea. Ondoko hauek adibide hutsak dira. Ezinezkoa da denak jasotzea. Uretara eroritakoa ateratzeko asmoz putzura salto egindako horien denen omenez idatziak dira hitz hauek.

Eugenio Azkuek, Reina Mariako patroiak, Antonio Campos atera zuen, putzura salto eginda, Antonio haur txikia zela. Geroztik bizitza osoan eskertu izan dio Eugeniori egun hartakoa. Juan Antonio Iturain bitan atera zuten: batean, Toki Alaiko Xantik eta bestean, Jose Antonio Errastik. Jesus Mari Atorrasagasti *Pana*, berriz, Patxi Oriden Konpaxak lagunduta atera zen, hamarrak harrapatzen zebilela erorita lehorretik luzatutako makilari helduta.

Joseba Lacadena ere erori zen putzura, Don Jose medikuaren semea; haur txiki-txikia zela ume-kotxe eta guzti, Goenkalen bezala. Orduan moilak aldapa uretara zuen, orain ez bezala, eta deskuidatuz gero, kotxeak uretara egiten zuen. Horixe gertatu zitzaion Josebari, Xixarioneko aurrealde horretan. Suerteza izan zuen, kotxea zutik erori zen, haurrak kotxe barruan segitu zuen, busti ere egin gabe. Ixarranekoak

ateratu zuen, Jabier Ikazetak.

Marka guztiak Divina Lanberrik hautsi zituen. Divina, putzu izkinan jaio eta bizi izandako emakumea, lau aldiz erori zen uretara haurra zela eta artean igeri egiten ez zekiela. Divinak ondo gogoan ditu bera uretatik aterazuten gizonak: Rufino G. Txabarri, Xanti Ataun, eta Luis eta Martxiel Genova.

Ordainetan, berari ere tokatu zaio uretatik umeak ateratzea. Behin, arrantzale batek deituta: *hi, Divina, umea putzura erori den*. Baina Divinak baino lehenago beste emakume batek salto egin zuen, eta uretan zela akordatu ez zekiela igeri egiten. Hura ikusita saltatu zuen Divinak. Aurrena umea atera zuen, Imanol Atorrasagasti Sarasua. Haurra Teresa Solaberrietaren esku utzita, berriro salto egin zuen putzura emakumea ateratzera, atzetik heldu eta hurbildu zuen moilaraino. Maiatzaren 4a zen 1988koa, herrian hileta-eguna, itsasoan hildako Luis Mari Manterolarena.

Inazita Leunda bi aldiz erori zen haurra zela, 4 eta 5 urterekin. Orduan, Divinak esan zion: *hik igeri egiten ikasi behar den*. Berak erakutsi zion moilatik kanabera bat luzatu eta Inazitak uretatik hari heltzen ziola, 1960 inguruan.

Estanis Sarasua arraunlaria ere txikitik bitan eroria da uretara. Batean, Juanito Manterola Txokolatek atera zuen. Bestean, txipi-txapaka jostatzen ari ziren mutil koskorak, harri zapalak uretara bota eta harria ur azalean saltoka ea urrutien nork botatzen zuen. Horretan ari zela, norbaitek bultza egin zion. Moilan berarekin zen anaia Inazio, baina hark ez zekien igerian. Udara herreroneko etxean pasatzen zuen familiako gizonak atera zuen putzutik.

Idatzi hau zuentzat da: uretara eroritakoaren atzetik, bizia arriskuan jarritz, putzura salto egin eta hura handik ateratzen saiatutako guztientzat, eroritakoa onik atera edo ez.

# 1.502 esker

Hori adierazi digute Baliza elkartekoek. Parte-hartzea eta jai giroa emaitzak baino garrantzitsuagoak ziren, **maiatzaren 7ko herri galdeketan**. Hona hemen igande hark utzitakoa

TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: KARKARA

**G**oizeko 9:00etan ireki zituzten hautestontziak, aurreku batekin. Iritsi zen hilabetee-tan zehar prestatutako eguna, herri galdeketaren eguna. Eider Peirok eta Patxi Danbolinek eman zituzten lehen bozak, 16 eta 94 urtetakoak, hurrenez hurren.

Hortik aurrera, eguraldia lagun zela, festa giroan joan zen eguna. Ikuskatzaileak eta otxotea, parte-hartze datuak eta txaranga. Luze joan zen eguna, eta baita boto kontaketa ere. Egunaren amaieran, eta baita hurrengo egunetan ere, zenbaki bat zen jendearen ahotan zebilena: 1.502.

## 1.502 boto

16 urtetik gorako 4.747 lagunek zuten botoa emateko aukera Orion, eta horietatik 1.502 pertsonak parte hartu zuten herri-galdeketa; hautesleen %31,63ak, alegia. Boza eman zuten herritarren %95,54ak baietz erantzun zion honako galderari: *Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?*


Honakoak izan ziren emaitzak:

- Bai: 1.435 boto - %95,54-
- Ez: 43 boto - %2,86-
- Baliogabeak: 20 boto
- Zuriak: 4 boto

Lehen parte-hartze datuak 13:00etan jakinarazi zituzten, eta ordurako herritarren %18,47k eman zuen boza. 15:00etan eguneratu zuten datua, eta ordu horretarako herritarren %23,67 joan zen hauteslekuetara. 18:00etara bitartean, berriz, %27,27k eman zuten botoa.

Botoa eman zutenak adin taldetan banatuta ikusten dira





hurrengo orrialdeko grafikoan. Grafikoa ulertzeko kontuan izan behar da zein pisu edo neurri duen adin talde bakoitzak bere unibertsoan eta hori adierazteko talde konkretu bat hartuko dugu adibide. 19-23 adin taldeak bost urte hartzen ditu. 1994-1998 urteen artean jaiotako 249 pertsona daude erroldatuak Orion eta horiek 16 urtetik gorakoak %5,14 dira. Adin tarte horretako erroldatuen %6,8k eman zuen botoa.

Sexuaren arabera parte-hartzea orekatuagoa izan zen: botoa eman zutenen %50,5 emakumezkoak ziren eta %49,5 gizonezkoak.

**Aurrera begira**

Baliza elkarte herri-galdeketera begira sortutako taldea denez, desegin egingo da orain maiatzaren 7a pasa ondoren. Horrek, ordea, ez du esan nahi ibilbidea amaitu denik, Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko dinamikak lanean jarraituko baitu.

Herritarrei eskerrak eman eta ibilbidearen etapa bat ixteko, ekainaren 1ean argazki emanaldia egingo du Baliza elkarteak Kultur Etxean, 19:00etan. Bertan, galdeketera modu batera edo bestera parte hartu zuten herritar guztiekin maiatzaren 7ak utzitako irudiak gogora ekarri eta zizka mizka batzuk dastatuko dituzte.

Horretaz gain, ekainaren 10ean Bilbon elkartzeko deialdia egin du Gure Esku Dagok, *adostasunaren oinarriak eta erabakitze borondatea* plazaratzeko: Euskadi plazatik Eliptika plazaraino galdera ikur erraldoia osatu nahi dute. Parte hartu nahi duenak Errusta, Gabon eta Kolon Txiki tabernetan eskura dezake konpromiso txartela, bi euroren truke.

ADINA	% BIZTANLERIA	% BOTOA
16-18	2,42	2,18
19-23	5,14	6,38
24-28	4,90	6,38
29-33	6,86	7,43
34-38	9,57	9,69
39-43	11,71	10,25
44-48	11,26	10,57
49-53	9,46	10,25
54-58	8,90	11,62
59-63	6,45	6,86
64-68	5,95	6,21
69-73	5,81	5,17
74-78	3,90	3,39
79-83	3,24	2,34
84-88	2,77	0,73
>89	1,65	0,56



## Helburua beteta

Horixe adierazi zuen Baliza elkarteak hautetsontziak itxi eta kontaketa egin ondoren irakurri zuten balorazioan: bete dira hautetsontziak botoz eta gure bihotzak herri goz. Botoa eman zuten 1.502 oriotarrentzako esker hitzak agertu zituzten, eta baita egun osoan lanean egon zirenentzat ere.







# “Aurten ibiliko garela uste dut”

## **Jon Salsamendi**

Orio AEko entrenatzailea

2005.urteetik egon da Orioko Arraun Elkartetik kanpo Jon Salsamendi, eta urte hauetan curriculum bikaina osatu du Astilleron eta Bermeon. Herriko mutilen traineruak haize freskoa behar zuelako deitu zioten iazko udazkenean, eta baiezkoa eman ostean, gustura dago taldeak egun daraman martxarekin. **Abizenei erreparatu gabe, oriotarrak txaluparekin harro sentitzea du helburu.**



**TESTUA: IÑIGO GAITON**

**ARGAZKIAK: EGIGUREN ARGAZKIAK**

Azken urteetan emaitza onak eman dizkion lanerako metodo bat dauka Jonek, eta Orion hori txertatu nahian dabil. Asmatu edo ez, argi izan du hasieratik lana nola egin; besteak beste, umiltasuna eta anbizioa uztartuz.

**Nolatan itzuli zara Oriora?**

Zirkunstantzia asko elkartu dira. Arraunarekin zerikusi zuzena duten arrazoiez gain, kontu pertsonal batzuk ere izan dute eragina. Hala ere, erabakia guztiz profesionala izan dela azpimarratu nahi dut.

**Curriculum bikaina egin duzun azken urteetan, Oriok irabazitako bandera kopuruak beheranzko inertzia garbia izan du. Nola ikusi duzu hori distantziatik?**

Nahikoa lan izan dut egon naizen taldeetako martxarekin, eta ez dut traineru horiari begira egoteko astirik izan. Egia da azken urteetan ez direla bandera garrantzitsu asko irabazi,

baina beheranzko inertzia hori ez da hain nabarmena. Egon dira urte politak ere.

**Ados, baina denok dakigu Orioko arraunzaleek zer eskatzen duten.**

Beno, horrek badu irakurketa positiboa ere. Lehen irabazi edo galdu terminoekin bakarrik neurtzen genituen estropadetako emaitzak. Orain bigarren edo hirugarren postu bat baloratzen ere badakigu. Ari gara ikasten.

**Iazko denboraldia lur jota bukatu zuten arraunlari batzuk. Irailean zurekin bildu ziren ia arrauna urtebetez uztekotan zirela, eta iritzia aldatu zenien.**

Ez nien fabula edo ipuinik saldu, ez eta emaitza edo banderarik agindu. Zenbaki eta datuekin objektiboa izaten saiatu nintzen, errealista, eta lanerako modua zein izango zen argi ulertu zuten. Askok ilusioa berreskuratu dute, eta hori da ga-



rrantzitsuena. Ikusiko dugu honek udan nora garamatzen.

#### **Printzipioz denboraldi bakarrerako etorri zara.**

Beste elkarteetan aritu naizenean ere beti hartu dut urtebeterako konpromisoa, hau ez da berria. Emaidza onak eman dizkidan lanerako metodo bat daukat sortua, eta hori aplikatu nahi dut hemen. Agian ez dut asmatuko, baina ez dut frogak egiten jarduteko astirik.

#### **Metodo bat?**

Bai, lanerako plangintza bat. Denboraldia etapa desberdinez osaturiko prozesu luzea da. Etapak bukatzean helburuak bete diren aztertzen dut. Lortu ez badira, ez naiz hurrengora pasatzen. Eskolan bezala, kurtsoa edo azterketak berriz egitera bidaltzen ditut arraunlariak.

#### **Arraunlarietiko kontrol handia izatea suposatuko dizu horrek.**

Bai, eta taldeko guztiekin komunikazio ona edukitzea ere bai. Prestaketa prozesuko gauzarik txikienari arreta eman

eta etengabe gainbegiratzeari garrantzia izugarria ematen diot. Horixe da nire sekretua.

#### **NEGUKOLANA**

##### **Zer balantze egiten duzu neguaz?**

Gustura nago entrenamenduetan lortutako datu eta emaitzekin. Ez dugu arazorik izan fase bakoitzeko helburuak lortzeko. Honek sinplea dirudi, baina ez da beti hala izaten.

##### **Arraunlarietzat estimulu gehiegirik gabeko hilabeteak izango dira horiek, ezta?**

Bai, horregatik saiatzen naiz etengabe arraunlariak konfort zonetik ateratzen. Entrenatzen denak adinako garrantzia du entrenatzeko moduak.

##### **Zein indargune ditu aurtengo koadrilak?**

Teknikoki mutil finak dira, oso arraunlariak. Urdaibaikoekin edo Astillerokoekin konparatuz indar gutxiago dute, baina erresistentzia handiagoa. Motor ona dugu traineruan.





“Emitza onak eman dizkidan lanerako metodo bat daukat, eta hori aplikatu nahi dut Orion.”

“Txalupari 100%ean ohorezko txandetan aritzea eskatu behar zaio.”

### **Eta ahulgune nabarmenik bada?**

Beren potentzialean konfiantza gehiago izaten ikasi behar dute, beste traineruei beldurra galtzeko.

### **TEKNIKA**

#### **Kortarekin eman zenuen eliteko arraunera saltoa, Jose Franciscorekin ere ibili zinen Astilleron... Zer motatako arraunketa txertatu nahi duzu Orion?**

Arraunketa estilo ez jardutea oso modan dago, eta jendeak oharkabean teknikaz baino estetikaz hitz egiten du. Palada bakoitza ziklo bat da, eta hor keinu bat edo gehiago nabarmenduta, arraunketa mota jakin bat izatea lor dezakezu. Jendeak batzuetan estetikoki gauzak nabarmentzen ditu errendimenduan zein eragin duten jakin gabe. Arraunketa politik ez dizu beti azkarrago joaten lagunduko.

#### **Jon, hitz egin argiago.**

Arraunketak hiru neurgarri ditu: luzera, potentzia eta maiztasuna. Hiru faktore horiei ahalik eta etekin handiena atera behar zaie. Hanketako azkazaletatik hasita buruko azken ileraino, gorputz osoa aprobetxatzen irakasten ari naiz palada luze eta indartsuagoak jotzeko. Agian estetikoki ez da arraunketarik politena, baina mutilei esaten diegan bezala, gure kirola ez da patinaje artistikoa. Helmugara aurrena iristen denak irabazten ditu estropadak.

#### **Uretan atake biziagoa ari omen zara eskatzen.**

Bai. Palada bakoitzean gauza asko neur daitezke: indarra, azelerazioa, potentzia, abiadura... Arraun pala uretatik ateratzen den momentua da palada bakoitzeko unerik azkarrena. Motelena, aldiz, arraunak ura ukitzen duena, *atakekoa* alegia. Enbarkazioa geratu egiten da, nolabait esateko. Ontzia ahalik eta gutxien geratzeak izan behar du helburua, arraunari gehiago nola tira pentsatzen jarri aurretik. Ez gara ari *atake* indartsu edo bortitzagoa lantzen, azkarragoaren bila baizik.

#### **Aurreko urteekin konparatuz, itsasoan gehiago ari zarete entrenatzen.**

Arrauna itsas kirola da eta estropadarik garrantzitsuenak itsaso zabalean jokatzen dira. Gure ibaia zoragarria da aulki mugikorrerako, baina ur gutxi duenez, traineruan jarduteko gogorra egiten da. Errioi ibilita erresistentzia asko lantzen da, baina txispa galdu ere bai.

#### **Aranberri patroia abila da itsasoan.**

Bai, gozatu egiten du olatu artean. Badakigu zer eskatu elkarri, komunikazio bikaina dugu. Mirari txikia da Gorka gurekin egotea, suertez pieza askok egin dute bat.

### **HELBURUAK**

#### **Taldea banderetatik 23 segundora zegoela esan zenuen iazko urrian. Orain, zenbatera gaude?**

Lehenengo denboraldiko estropadetatik ateratako batz besteko zifra da. Iritzi kategoriko bat emate aldera, distantzia hori jaitsi dela esan dezaket, eta gehiago moztu behar genuke gauzak ondo joanez gero.

#### **Ezin dugu helburu zehatzez hitz egin oraindik?**

Ez, ez litzateke errealista. Hala ere, Oriori 100%ean ohorezko txandetan aritzea eskatu behar zaiola esan dezaket.



### **HARREMANAK, HASERREAK, ORBAINAK**

**Azken 20 urteetan jende dezente joan da arraun elkarteko atzeko atetik.**

Erabaki potoloak hartzean ezin izaten da denekin asmatu. Gauzak aurrez aurre hitz egin behar dira, errespetuz. Guztiok gara pertsonak, denok ditugu sentimenduak, eta errazegi ahazten gara horretaz. Urte askotan sentsibilitate falta handia egon da arraun elkartean.

(...)

Ondorengo esaldia orokorregia da, baina gauza asko azaltzen ditu: niri aulki mugikorrak lagunak eman dizkit, eta traineruak kendu. Orain, arraunarekin aldrebestutako harreman pertsonalak berreskuratzen saiatzen ari naiz, erlazioak normaltzen. Lan orduetatik kanpo arraunaz ahazten ikasi dut, eta horrek jendearekiko tratuan beste perspektiba bat izaten lagundu dit; noski, distantzia horrek entrenatzaile hobe ere egin nau.

### **Ibiliko al gara aurten?**

Bai.

### **Denboraldia banderarik irabazi gabe bukatzea frakasoa litzateke?**

Bai.

“Urte askotan sentsibilitate falta handia egon da arraun klubean.”

“Aulki mugikorrak lagunak eman dizkit, eta traineruak kendu.”

# “Arraunlariak pertsonak dituk... pertsonak!”

**G**oizeko hamarrak Arraunetxen, astearte buruzuria. Jon Salsamendi elkarteko beste prestatzaile batekin ari da berriketan bulego batean. Bien artean 60 urtetik gorako esperientzia dute arraun munduan, eta sakon ari dira entrenamenduez eta planifikazioaz hitzketan. Bat-batean elkarri begira geratu dira, isilik, algoritmo konplexu bat deszifratu balute bezala: *Arraunlariak... pertsonak dituk! Pertsonak!* Esaldi horrek itxi du bilera.

Estropalarien alor psikologikoa lantzeak garrantzia handia du Jonentzat. *Arraunak asko emateaz gain, kendu ere izugarri egiten du. Nik bizpahiru ordu ematen ditut egunean arraunlariekin, baina beste momentuetan egiten dutena ez dut ikusten.* Lana, familia, lagunak, bikotekideak... Sentimenduek eragin zuzena dute kirol errendimenduan. *Nik jakin egin behar dut arraunlari bat benetan erretratua sentitzen den egunero entrenatzera datorrenean. Arraunak desgaste fisiko eta psikologiko handia eragiten du, eta horrek estropalarietako sortzen dien satisfazio maila neurtzea ezinbestekoa da. Giza faktoreak inportantzia izugarria du nire lanerako metodoan.*

## Itsasora

Arratsaldeko bostetan, Arraunetxe sarreran neska-mutil koxkor talde bat kontu kontari ari da, norbaitek atea ireki zain. Eskolako motxila etxean utzi, bokadilo handia jan eta bizikleta hartuta etorri dira erriorearen beste aldera. Senior mutilak kotxez datoz, ogitartekoa jan gabe. Jon trainerua jartzen ari da, talde osoa klubera iritsi bitartean. Gero, borobilean jarri, beroketa ariketak egin eta bi enbarkazio uretaratzeko agindua eman du: trainerilla eta trainerua.

Barra muturrean koska handiak daude uretan, eta trainerillako aurrekalariak lanak ditu ipurdia tostan mantentzen.



Ezeroso hartu dute bi tripulazioek ipar mendebalderanzko norabidea. Eguzkia udatiar ageria da Getariako Arratoia- ren gainean, itsasok urdin ilun kolore dotorea du, eta bata bestearen atzetik datozen olatuek trabeska jotzen dituzte bi txalupak. Estanparen ederrak eta arraunlarien sufrikarioak aurrez aurre egiten dute talka. *Kresala behar dia-*

*gu! Errioan nik ere egingo nikek oraindik arraunean!*

Joaldi batzuren ostean, bi tripulazioei geratzeko agindua eman die Jonek. Ez zaio gustatu ikusi duena. *Horrela jardun baino, hobe diagu gitarra jotzera joan!* dio, serio demonio. Aurpegi garratzak leuntzeko, azken hitzen tonua atsegina- goa da. *Zerbait gaizki antzematean, esan lasai, orain hitz egin beldurrik gabe. Gauzak uretan argituz gero, etxera lasai joango gaituk!*

## Rock and roll gehiago!

Bi tripulazioak ordubetez aritu dira olatuei trabeska arraunean, eta azken txanpa poparean jo dute tentsioa askatu eta sentsazio onarekin lehorreratzeko. *Rock and roll gehiago! Itsasoa bihurritzen denean guk ere erradikalagoak izan behar diagu!* Irratian edo telebistan entzunda ematen ez badu ere, Jonek makarra puntua dauka distantzia motzetan. Arraunlariak zirikatze ironiara jotzen du sarri, baina milimetrora kontrolatzen du esandako hitz oro.

Agur esan aurretik zaleei mezuren bat bota nahi dien galdetu diogu. *Bai, oriotarrak traineru horiarekin harro sentitza lortu nahi dugu, entrenatzailearen, patroia- ren edo arraunlarien abizenei erreparatu gabe. Gu saiatuko gara horretarako motiboak ematen, gogor ari gara lanean. Ea gara batean bezala herriko balkoiak eta estropadak horiz janztea lortzen dugun!*

# Gazia



Garbiñe Manterola

**Orion pasatzen genuen gehienok sanjuanetan hasi eta Euskal Jaietan bukatzen zen uda eternoa. Eta ez genuen faltan botatzen ezagutzen ez genuen hura.**

Lehen topatu nuen aspaldian ikusi gabea nuen laguna, donostiarra bera. Kanpinera etorria zen asteburu pasa hiru seme-alabak altzozan hartuta. Leku ederrean bizi nintzela esan zidan, uda oso bat gustura pasako lukeela bertan. Eta umezaroko uda guztiak etxetik mugitu gabe, bertan, igaror nituela pentsatuz egin nuen etxerainoko bidea.

Aita oriotarra, ama zarauztarra. Biak ala biak kalekumeak, gainera. Uda iristean ez genuen izaten pueblo bat nora alde egin. Ez eta baserriren bat bisitatzeke ere. Gurasoek ez zuten izaten kanporako gogo bizirik. Gurean oporretarako destinoa ur gaziak osatzen zuen: Orioko moilak, arranplak eta hondartzak; Xuai gainaren beste aldean zegoen bigarren putzuak. Zarauzko kosta-bazterrean zeuden amonaren terraza, hanka hutsik jaisten ginen malekoia eta aitona eramatzen gintuen moila. Hortik aparte, izaten zen estropadaren baten aitzakian egunpasa txikiren bat beste norabaitera.

Ezagutzen genuen destino internazional bakarra urtean behin bixitatzen genuen Artxandako parkea zen.

Lagunartean antzeko ibiltzen ziren guztiak, baserrira alde egiten zuen bat edo beste kenduta. Orion pasatzen genuen gehienok sanjuanetan hasi eta Euskal jaietan bukatzen zen uda eternoa. Eta ez genuen faltan botatzen ezagutzen ez genuen hura, oraindik inguruko ezagutzen nahiko lan baiken.

Gaur, berriz, asteburu luzeren bat iristean, baita motzen bat ere, pronto izaten dut motxila ate parean. Eta ahal dela alde egiten dut Oriotik. Matraka galanta ematen dut deskonektatu beharrek. Gero, hegazkina hartu eta minutuoro bidaliko ditut mezuak, argazkiak, bideoak. Inoiz baino konjektatuago izatera errenditu baikara azken boladan.

Lanean tratua eginez gero, pozik egingo nuke aurtengoan ez bada hurrengoan esperimendua. Ekainaren 23an hasi eta irailaren 10 arte jai izatea lortu, mugikorra itzali eta Xuaike bi aldeetako urekin azala gazituta izan 3 hilabete luzez. Nago, inoizko oporraldirik onena litzatekeela, berriz ere marrek erlojuak baino garrantzi handiagoa hartuta.

Uda on baino uda off opa dizuet.



FISIOTERAPIA

IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORRENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

# Umorez egiten da iraultza onena

## Kritika Erradikalak gara

**Antzerkia,** Ane Labakak eta Beatriz Egizabalek antzeztu zuten maiatzaren 12an, Etxeluzen.



Erradikalak dira Labaka eta Egizabal. BEÑAT CARRETERO

**M**aiatzaren 12an Orioko Etxeluze gaztetxean izan ziren Ane Labaka eta Beatriz Egizabal. Jende ugari gerturatu zen *Erradikalak gara* emanaldia ikusi eta entzutera. Publikoak ez zuen oso argi emanaldiaren mamia. Antzerkia, bertsoa, feminismoa.. hortik zihoala kontua baina arrasto handirik gabe. Izenburuak berak ere ematen zuen pistaren bat.

Bertsoa eta antzerkia uztartuz, hainbat gai lantzen dituzte feminismo ikuspegitik: bertsolaritzan emakumeen presentzia, amatasuna, aniztasuna, sexua, indarkeria. Umorea lagun, protagonistek beren kezka eta kontraesanak plazaratu zituzten; aurrean zeudenak norbere barrutara begira jarritz.

Egun, emakumeok bizi dugun errealitatea umorez plazaratu zuten. Parez pare, mina egiten duten egia ugari gogora ekarriz; zuzenean edo zeharka. Barrez batzuetan, deseroso sentituz besteetan, kontraesanak gureak ere bazirela ohartu nintzen. Bertso ederrak eta umorez bustitako kritikak; beti ere hausnarketarako bidea zabalduz.

Feminista izatea ondo omen dago; baina batzuk pasa egiten dira! Ez da horrenbestera, edozein txikikeriagatik kezkatzen gara. *Erradikalak zarete* esaten digute. Eta emanaldiaren ostean, *nahi eta behar baino gutxiago* pentsatu nuen.

Jarrai dezagun bada kezkatzen, *txikikeria* horiek aldatzen, libreago sentitzen, hortzak erakusten, ahalduntzen eta Erradikalak izaten. Eta ahal bada umorea galdu gabe. Umorez egiten baita iraultza onena!

LEIRE BELDARRAIN

**BODEGAS**

*Gailur*

5000 BARRIOS de ORIO  
Tel./Fax 943 83 91 38  
www.bodegasgailur.com

Amalur Erricea

**ZUDUGARAI**

*Coleriako Txakolina*

Tel. 943 83 03 88  
Fax 943 83 54 52  
bakoizrudugarai@orokaz.net  
www.bakoizrudugarai.com

**Katu MORIA**

ΟΙΣ ΟΙΣ ΟΓΙΣΤΟ ΠΙΣΙΝΟ

**ESTROPALARI, 10**  
**20810 ORIO**  
tel. 943 11 66 99

www.katumoria.com

LARRIAMILOK  
608 89 11 20

**INDO**

**Garraio frigorifikoa**  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

**Ubegun industriagunea, 4**  
**Tel. 943 894 024**  
**Fax. 943 130 144**  
**20809 AIA - ORIO**

# “San Juan baleontzia Red Bayn dagoenean estreinatu nahi dut opera”

**Aiden Hartery**

Musika konpositorea

Juan Martinez Larrume oriotarraren inguruko opera bat idazten ari den musikagile kanadarra da Hartery. Labrador probintzian jaio zen eta, orain, Euskal Herriarekin eta Oriorekin lotu du hango historiak.

**M. GARCIA ETXEBERRIA**

Musikagilea, tronboi-jolea eta hezitzailea da Aiden Hartery –Labrador City, Kanada, 1988–. Hamaseigarren mendeko oriotar baten istorioa kontatzen duen opera bat prestatzen ari da, Juan Martinez Larrume baleazalearena, hain zuzen. Hori izango da bere doktore tesia.

**Nola sortu zen euskal baleazaleen inguruko opera bat egiteko ideia?**

Konpositore izanik, pieza luze bat idatzi behar dut doktore-tza tesi bezala. Tutorearekin hizketan, opera bat egitea pentsatu genuen. Newfoundland eta Labradorko kultura –musika, folklorea, historia...– eta nire musika elkartzen saiatzen aritu nintzen denboraldi batez eta, horrela, opera bat egiteko egokiak izan zitezkeen nire sorterriko istorioetan pentsatzen, segituan etorri zitzaizkidan gogora Red Bayk euskal baleazaleekin zuen lotura. UNESCOk gizon-emakume gutzietan ondarea izendatu du, eta ikertzen hasi nintzenean kontatzeko istorio zoragarriak daudela konturatu nintzen.

**Red Bayn aurkitutako dokumentu eta aurkikuntzak oinarri hartu al dituzu istorioa idazterakoan?**

Ikerketa, dokumentazio eta indusketa ugari egin dira Red Bayn. Hortik datorren informazio horrek guztiak eragin handia du nire operan. Data, gertakari, detaile eta lanabesa zehatzen inguruko informazioa giltza izan dira operaren argumentua, eszenatokia eta musika idazterakoan.

**Euskal Herriko Albaola elkarteak Red Bay ondoan hondoratutako San Juan baleontziaren erreplika egiten ari da. Harremanik izan al duzu elkartearekin?**

Badut San Juan baleontziaren eraikuntzaren berri eta zoragarria iruditzen zait ekimena. Oraindik ez naiz Albaolarekin

harremanetan jarri, baina gustora hitz egingo nuke bertako norbaitekin. Izan ere, Euskal Herrira joatekoa naiz uda honetan ontziola bisitatzeko asmoz.

**Juan Martinez Larrume baleazale oriotarra da zure operaren ardatz. Zer kontatuko du?**

Juan Martinez Larrumeren testamentua oso dokumentu garrantzitsua da opera honetan. 1577ko ekainaren 22an hil zen bera, eta 1576-1577ko negua Red Bayn pasa zuen euskaldun talde bati buruz ere badira dokumentuak. Baliteke, beraz, Martinez talde horretan egotea.

Operak Red Bayra joaten denekoa kontatuko du, baleak arrantzatu eta olio ateratzera. Han harrapatuta geratzen dira marinelak eta Labradorko negu gorriari aurre egin behar diote. Hori izango da korapilo nagusia.

Testamentuak Juanen emaztea eta alaba ere aipatzen ditu. Horregatik, marinelak etxera ez itzultzeak ekartzen dituen arazoez ere hitz egingo dut. Euskaldunek bertako indigenekin –Inuit herria– zuten harremanak ere tokia izango du. Badakit lagunkoiak zirela elkarren artean, eta zenbait dokumenturen arabera inuitek noizbait balea arrantzan lagundu izan zieten europarrei.

**Zure lehen opera da. Nola konposatzen da opera bat?**

Beste konposizioekin egiten dudana moduan egingo dut honen ere: materiala bilduko dut lehenbizi, ziur egon arte testuinguraketak musika mantendu dezakeela. Orduan hasiko naiz musikaren zirriborroarekin. Beste operetan bezala, leitmotivak eta kantu nagusiak idatziko ditut, baina musika naturalki sortzea nahi dut. Hori euskal instrumentuak –txistua, txalaparta...–, hamaseigarren mendeko musika eta



Hartery Red Bayn. Atzean, Saddle Island eta balea hezur bat. A. HARTERY

“Geruzak bereizi eta bakoitzari instrumentu egokia jarrita balea kantuak modu eraginkorrean erreproduzitu daitezke.”

musika garaikidea erabiliz lortuko dudala uste dut.

Oraindik ikerketa lanetan nabil, dokumentuak irakurtzen. Megan Gale Coles idazlearekin lanean ari naiz libretoa idazten, eta lehen ideia musikalekin ere hasi naiz. Baleen kantuarekin, adibidez.

**Euskal instrumentu zaharrik erabiliko al duzu zure operan?**

Bai, euskal instrumentu tradizionalak oso interesgarriak iruditzen zaizkit eta Euskal Herrira joaten naizenan gertuagotik ezagutzea espero dut. Bilbora eta Donostiara joango naiz, eta Oriora ere joan nahiko nuke Juan Martinez Larrumeren baserria ezagutzera. Han nagoela, bertako musikariek kontaktuan jarri nahi dut instrumentuak ezagutzeko.

**Baleen soinua eresartu nahi dituzu. Nola egingo duzu hori?**

Esperimentuak egiten nabil azkenaldian. Balea hotsen grabaketak entzun ditut eta soinuen geruza desberdinak banatzen aritu naiz. Balea kantuak oso musikalak dira eta harra-patu egiten dute; geruzak bereizi eta bakoitzari instrumentu egoki bat jartzen badiozu kantua modu eraginkorrean erreproduzitu dezakezu. Musikariek teknika bereziak erabili behar dituzte hori lortzeko.

**Noizko amaitu nahi duzu?**

2018ko abuztuan amaituko dut opera, eta estreinua ere laister izango dela espero dut. San Juan baleontzi berria Red Bayra joango dela entzun dut eta ontzia portuan egongo den momentua opera aurkezteko egokia dela uste dut. Zein ederra litzatekeen XVI. mendeko ontzi baten XXI. mendeko erreplika eta XVI. mendeko euskal baleazaleen inguruko XXI. mendeko opera elkartzea!



**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

**OREKA FISIOTERAPIA**

Tendinitisak  
Lumbalgiak  
Artrrosia  
Zefaleak...

Masaje terapeutikoa, bentosak, akupuntura eskuzko terapia, osteopatia

**943 13 35 37**

Aritzaga kalea, 11 behea



**ORIA hertz klinika**

Orio Hertz Klinikak **ORFODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martian.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre-estorkuntzean sor daitezkeen arazoak.

Amanzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

**ITZIAR**

kirolak

Tel. 943 83 31 03

**KAIJOA**

Arropa  
Oinetakoak  
Osagarriak

Arantzale kalea, 7  
T 943 14 05  
ORIO (Guzkoa)

Zorro kalea, 18  
5. Erdiko kalean kokatuta  
T 943 01 04  
ZARAUZ (Guzkoa)

Erbera kalea, 10  
T 943 50 00  
ZUMAIA (Guzkoa)

www.kaioa.es



**ELEKTRIZITATEA**  
-Andex Express-

943 831 774  
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

**ttipi**

ttapa

943259695

ttipittapa.oihane@gmail.com

Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

**K-U-K-U-A-R-R-I**  
ELEKTRIZITATEA

Tel: 943 100 181  
Mobila 610 281 368  
Zigordea, 52 - Behe C  
20500 Zarautz

kukuarri@kukuarri.com



**EKILORE GARBIKETAK**

626417841  
ekilore@outlook.es

**UDA SASOIAN 2017 KARELA**



**BPXport**  
kirol zerbitzuak  
www.bpxport.es  
943894428  
orio@bpxport.es

**Eskulanak, igerilekuak, puzgarriak, jolasak, hondar jolasak, padela, hondartza, ginkanak, orientazioa, eskulada, patinak, futbola...**  
Ordutegia: 9:30-12:30  
**JARRAIA** (Astelehenerik ostiralera)  
\*Hamabostaldik:  
- UZTAILA 3-14/17-28  
- ABUZTUA 1-11  
Uda Sasoiaren prezioa:  
Bazkideentzat: 105€ hamabostaldikoa  
Ez bazkideentzat: 115€ hamabostaldikoa  
**MILA AUKERA UDARA HONTAN!**



**UDA KANPAINA 2017 KARELA**

Jarduerak Actividades	Adina Edad	Hamabostaldik Quincenal	Ordutegiak Horarios	Prezioa Precio	
Igeriketa	3-4 URTEKOENTZAT	•	10:15-11:00	35,00 €	
	5-6 URTEKOENTZAT	•	11:00-11:45	35,00 €	
	6-9 URTEKOENTZAT	•	11:45-12:30	35,00 €	
Jolasak	6-9 URTEKOENTZAT	•	9:30-10:30	35,00 €	
Eskulanak		•			
Tenis		•	10:30-11:30	35,00 €	
Softbol		Uzt 10 - 21/ Uzt 24 - Abu 4			
Padel		•	11:30-12:30	35,00 €	
Futbola		Uzt 10 - 21/ Uzt 24 - Abu 4		18:15-20:00	35,00 €
Tenis		•		9:30-10:30	35,00 €
Surf		•			
Padel		•			
Jolasak		•			
Softbol	Uzt 10 - 21/ Uzt 24 - Abu 4		10:30-11:30	35,00 €	
Surf	>10 URTEKOENTZAT	•			
Eskulanak		•			
Surf		•	11:30-12:30	35,00 €	
Futbola	Uzt 10 - 21/ Uzt 24 - Abu 4		18:15-20:00	35,00 €	
Arraunketa	•		Martxoaren arabera	35,00 €	





# Pailazoak Ikastolan

**Aitor Arregi eta Iñigo Fernandez**

Pailazoak

Aurten ere guraso artistak izan ditugu ikastolan, hona hemen biren ibilbideak.

**Noiz eta nola sortu zitzaizuen zaletasuna?**

**Aitor:** Beti gustatu izan zait antzerkia eta umorearen mundua. Beti izan naiz taldeko "pailazo" eta jendeak animatuta hasi nintzen.

**Iñigo:** Betidanik gustatu izan zait zirku eta gaztaroen barrutik bizitzeko aukera eman zidan pailazo alemaniar bat eza-gutu eta harekin hasi nintzen lanean Europan zehar.

**Afizioa ofizioa bihurtu al da?**

**A:** Ez, oso zaila da, ezingo nuke hortik bizi. Hobby bat da, gaur egun ezinezkoa da bertatik bizitzea.

**I:** Hasieran, afizioa ogibide bihurtu zen. Orain, afizioa da niretzat eta saririk handiena, ikusleak barrez ikustea da.

**Zertan oinarritzen zarete saio bat prestatzerakoan?**

**A:** Bakarriketetan nik bizi izan dudana – areagotuta noski – eta internetez, telebistaz eta inguruan ikusi dudana baliatzen naiz.

**I:** Ikuslearen perfila begiratzan dut, ez baita berdina umeentzako soilik den saio bat prestatzea edo helduak ere izango diren saioa izatea.

**Prestakuntzan zuen haurrek parte hartzen al dute?**

**A:** Clown eta ipuin kontalari saioetarako bai. Haitzekin, clown saioa prestatzerakoan, berak ideia mordo bota zituen eta oso serio hartu zuen papera, oso aberasgarria izan zen.

**I:** Etxean nahiko pailazo naiz, eta ikuskizunetan praktikan jartzea gustatzen zait. Egunerokotasunean informazio asko ematen didate ikuskizunak prestatzerako orduan.

**Nola bizitzen dituzue zuen seme-alaben ikastolan emandako emanaldiak?**

**A:** Beraiek ilusioz ikusten ditudanez, oso gustura sentitzen naiz. Egindako saiorik politena izan da bertan semearekin egindakoa.

**I:** Oso gustura aritu naiz ikastolako saio guztietan, oso berezia da seme alabekin eta beraien lagunekin emanaldiak bizitzea.



Ainhoa Martikorena

*Bizitzea betebeharra al da?*

**A**uto istripu bat, kolpe larri bat, gaixotasun terminala... arrazoi ugari daude gure gorputzeko autonomia galtzeko. Eutanasia ezaguna egingo zaigu, baita suizidio lagundua ere. Zer ekaritzen digute gogora? Heriotza, etika, askatasuna? Bizi ezin den bizitza ez da pribilegioa, zigorra baizik. Ba al dakizue nola sentitzen diren pertsona hauek? Bizitzea zigor baten antzekoa da, ezin dute ezer egin.

Guri huskeriak iruditzen zaizkigunak: jan, jantzi, erantzi ez du edozein pertsona egiten. Nire ustez, ez da justua pertsona batek gaizki pasatzea, are eta gutxiago irtenbidea badauka. Norbera bere bizitzaren jabe da. Eutanasia onespene edo gabekoa izan liteke, suizidio lagundua berriz norbere kabuz – beti ere medikuak errezeptatutako botikarekin –. Herrialde honetan bi moduak era klandestinoan praktikatzen dira, hortaz kartzela joateko arriskua dute bai medikuek bai senitartekoez. Zuen ustez, bizidzea al da azken hasperena bakarrik eta era sekretuan ematea?

***Bizi ezin den bizitza ez da pribilegioa, zigorra baizik.***

# Autokarabanentzako aparkalekua Orion



Turismoa egiteko modua aldatzen ari da azken hamarkadan. Garai batean bidaiariak aukeratzen zuten ostatu mota nagusia hotela zen, zalantzarik gabe. Gaur egun ere horrela jarraitzen duen arren –atzerritar turisten %58,8k hotel edo antzerakoetan hartzen dute ostatu EAEn, eta bertakoen %29,4k–, askok alternatiba merkeago edo praktikoagoak bilatzen dituzte.

Erabilera turistikorako etxebizitzak dira aukera bat, KARKARAREN 382 zenbakian landu genuen gaia. Horrez gain, badira karabana, autokarabana eta furgonetetan bidaiatzea aukeratzen dutenak ere.

2016ko Frontur inkestaren arabera, atzeritik etorritako turisten %10,5ek kanpinetan hartzen du ostatu eta %23,5ek merkatuz kanpoko aukerak hautatzen dituzte. 2015eko Familitur inkestaren arabera, bertakoen %5,7jo-

aten da kanpinetara eta %1,7k hartzen du ostatu merkatuz kanpoko aukeretan.

## Autokarabanentzako aparkalekua

Uda gerturatzen doala Orio herrigunetan sortzen den karabana eta autokarabana trafikoa ikusita, horientzako harrera eremu berezia egiteko proiektua ari dira lantzen Udalean. Kokalekua dela eta, bi aukeren artean daudela adierazi dute politikariek: Abaromendi edo Ortzaika.

## Turismoaren legea

Autokarabana eta karabanen harrera eremu bereziak egokitzeko baldintzak 396/2013 kanpinen erregulazio dekretuan jasotzen dira.

Dekretuaren arabera, harrera eremu horiek *behar bezala mugatu, hornitu eta egokitutako lursailak dira eta ibil-*

*gailu mota horien erabiltzaileentzako irekita egongo dira prezio baten truke autokarabana eta karabanek –bost ibilgailuk, gutxienez– bidean doazela atsedena hartzeko eta ibilgailuetan pilatutako hondakinak uzteko aukera izan dezaten.*

Iragaitzazko autokarabana eta karabanen harrera eremu bereziak horrelako edo antzerako ibilgailuentzat soilik izango dira, dekretuaren arabera, eta, gehienez, 48 ordu egon ahal izango dute bertan ibilgailuek. Eremuen azalera 28 metro koadroko partzelatan banaturik egongo da eta horiek ez dute inolako oztoporik izango 3.5 metroko altueraraino. Partzeletatik kanpo, bideak eta aparkatzeko eta irteteko maniobrak egiteko beharrezkoak diren espazioak eduki beharko ditu. Erabiltzaileek aukera izango dute toldoak zabaltzeko eta elementu eramangarriak erabiltzeko, beti ere partzelen barruan egiten badute.

Harrera eremuek kanpinen azpiegitura eta zerbitzuen araua bete beharko dute, hainbat salbuespenekin. Horrez gain, prestazio hauek ere izan behar dituzte:

1. Erabiltzaileek ibilgailuaren deposituak hustu eta berriro betetzeko aukera izan dezaten, 40 partzelako zerbitzugune bat izan behar dute, gutxienez, hondakinak tratatzeko. Elementu hauek eduki behar ditu: erabilitako urak –ur grisak– isurtzeko hustuleku bat eta komuneko hondakin biologikoak –ur beltzak– hustutzeko beste bat, ur beltzen depositu hori garbitzeko txorrotarekin, eta ur garbien depositua betetzeko txorrotara, ur edangarriarekin.

2. Tentsio baxuko argindar-horniduraren potentzia ez da 6 amperetik beherakoa izango partzelako, eta ibilgailu guztiak hornitzeko beste harguneak jarriko dira erabiltzaileen eskura.



## EAJ Erantzun egokienaren bila

Autokarabanekin egiten den turismoa asko ugartu da. EAJren ustez, herriaren aktibitate ekonomiko garrantzitsuenak turismoa eta zerbitzuena izanik, behar berrietara egokitu behar dira. Autokarabanek non eta nola aparkatzea arautuko duen ordenantza bat egin behar dela uste dugu. Behar hau udaleko beste taldeekin konpartitzen dugula uste dugu gainera. Orioko EAJk argi du nola egin behar den: indarrean dagoen araudiaren arabera, ondo mugatuta, ur zikinak modu egokian botatzeko zerbitzua eskeintzen duena, ur garbia eta argindar tomak dituen. Non egin behar den ere garbi dugu. Udal teknikarien txostenaren arabera, bi aukera daude: Abaromendin edo Ortzaikan. Gure ustez, Abaromendiko guneak eskeini dezaken zerbitzua herriko kanpinak eman dezake. Gainera, hondartza inguruan 24 aparkaleku galtzen dira eta etxebizitzetatik oso gertu egonik, bertako bizilagunei traba eragingo die. Horregatik, Ortzaikan egiteko aukera egokiagoa ikusten dugu.



## Orain Autopista azpia eta Abaromendi

Autokarabanak herrian zehar egon dira eta daude sakabanatuta, eta aurten behintzat ez da modurik egongo gaiari heldu eta irteera egokiak eta adostasunak lortuta eremuak txukundu eta finkatzeko. Bi aparkaleku ezberdinetaz hitz egiten ari gara: herriko karabanak eta herritik pasadan gau bat ematen dutenak. Parkinak normalean ez daude egokituta autokarabanak aparkatzeko, espazioak kotxe arruntentzako antolatuta daude eta autokarabanek duten neurriengatik arazoak ematen dute. 2011-2015 legealdian behin baino gehiagotan egon zen eztabaida mahai gainean eta legeak markatzen zuen araua ateratzen zen: herriak kanpina izanda aparkalekua gutxienez bi kilometrotara egon behar zen. Hor zegoen kokxa eta hor geratu ginen trabatuta. Ematen duenez bi kilometrotako araua jada ez dago indarrean eta, Orain taldeak urteen poderioz kokapenak nahiko landuta dituenek, hau da proposamena: herritarrentzat autopista azpian eta kanpotarrentzat Abaromendin.



## EH Bildu Beharrezkoa den zerbitzua

Autokarabanen erabilera asko ari da handitzen azken urteetan European eta dagoeneko miloi bat dira urtero oporraldia pasatzeko leku baten bila dabilzanak. Kanpinak baino gehiago, autokarabanentzako bereziki antolatuta dauden guneak erabili ohi dituzte; baina turismo modu honen erabilera arautzeko legeak eta hauen behar dituzten azpiegiturak ez dira eskaeraren erritmo berean hazten ari. Badira urte batzuk Orioko kanpina alde batera utzi eta puska handi bat kendu zitzaioela. Aurreko legealdian, kanpinarekiko apustua egin zen eta urtetik urtera diru sarrerak handitzeko gaitasuna duela erakusten ari da. Autokarabanentzako azpiegiturak sortzeak kanpinean ematen den zerbitzua handitu eta osatuko luke, turismo mota berri bat erakarriz. Kokagune aldetik, bi eremu daude mahai gainean: Ortzaika edo Abaromendiko parkinga. Hasiera hasieratik, Abaromendikoa izan da gure proposamena. Gure ustez, aukera zabalagoak eskaintzen ditu eta udara aldian ezartzen den zaintza zerbitzuekin jarraipen zuzena izango lukeelako.



## PSE-EE Autokarabanak

Autokarabanek aparkatzeko gune propio bat behar dute. Gaur egun herrigunean egoten dira, aldi baterako edo epe luzerako, eta horrek aparkatzeko arazoak eragiten ditu: Mendibeltzeko, tren geltokiko eta Anibarko Portuko parkinak bete egiten dira. Horregatik, ibilgailu mota honentzako aparkatzeko gune eskusibo bat presatu behar da. Bi aukera lantzen ari gara Udalean: Abaromendi eta Ortzaika. Orioko PSE-EEen uste dugu aukera onena Abaromendikoa dela eta Ortzaika aparkaleku publiko bezala erabili beha dela uste dugu. Horrela, Anibarko Portuan udan zehar, kirol edo kultur ekintzak edo festak daudenetan sortzen den arazoa konponduko litzateke: auzoa autoz betetzen da eta bertako bizilagunek aparkatzeko arazoak izaten dituzte. Abaromendi toki egokiagoa iruditzen zaigu autokarabanentzako aparkaleku bat jartzeko.

## Gizartea

# Surflaria eta Paradisua liburua argitaratu du Iñigo Urdinagak



Iñigo Fernández Ostolatza oriotarrak lehen liburua plazaratu du, Iñigo Urdinaga izenarekin. Maiatzaren 18an eskaini zuen aurkezpen prentsaurrekoa Donostiako Udal Liburutegian, surflari ezagun eta kultur munduko lagunen artean. Iñigorekin batera, Surfilmfestival jaialdiko zuzendari Sancho Rodriguezek eta Joxerra Gartziake ere hartu zuten hitza. Bigarrenak adierazi zuenez, liburua sailkaezin bezain gozaeraza da, sekulan surf egin

ez dutenek ere gustura irakurriko duten saiakera-narratio nahasketa freskoa. Iñigoren bizipenek presentzia handia dute liburuan, baina ez da autobiografia bat. Orion kokatzen dira orrietako pasarte dezente, eta nazioarteko surf kontu asko ere bildu ditu Surflaria eta Paradisuak dituen kapitulu motzetan. Surfaz gain gizartearen martxa, hedonismoa, diruzalekeria eta beste hainbat gai buruzko lerroak aurkituko ditu irakur-

leak liburuan, eta surfaz idatzi duten idazle handien aipuak ere bai: Melville, Jack London, Agatha Christie, Eduardo Galeano,...

Liburuaren hitzaurrea doan eskura daiteke surflariaetaparadisua.eus webgunean. Erosi nahi izanez gero, dagoeneko jarri dute salgai Orioko Ontza liburu-dendan eta Iturain estankotan.

## Hilaren 26an Urdinaga eta Finnegan Pulitzer sariduna Donostian

William Finnegan amerikarrak Pulitzer Saria irabazi zuen 2016an "Barbarian Days: A Surfing Life" liburuarekin, eta datorren astean Donostian izango da Zilarrerako Euskadi saria jasotzen. Iñigo eta Finnegan elkarrekin arituko dira tertulian, Aquariumean egingo den ekimen baten baitan.

## Ekainaren 2an aurkezpena Orion

Urdinagak ekainaren 2an aurkeztuko du Surflaria eta Paradisua Orion, 19:30etan kultur etxean. Ibon Gaztañazpi kazetariak elkarrizketatuko du Iñigo, eta amaitzean, bertaratutakoek galderak egiteko aukera izango dute.

## OSPAKIZUNA



## 50 urte elkarrekin

Maria Teresa Garaialde Oriden eta Antonio Cuenca Vazquez 1967ko maiatzaren 20an ezkondu ziren. Aurreko igandean, 2017ko maiatzaren 20an, urrezko ezteiak ospatu zituzten familiarekin.

50 urtez elkarren ondoan egoteagatik zoriondu nahi dituzte senideek. Zorionak Antonio eta Maria Teresa!



## Gizartea

### Castrora eta Laredora irteera egingo dute herriko jubilatuek

Urtero bezala, Castrora eta Laredora irteera egingo dute Zaharren Babeslekukoek ekainaren 14an. 9:00etan irtengo dira Oriotik eta 13:30 inguruan iritsiko dira Castrora. Goiza han pasa ondoren, 14:30ean Laredoko Cosmopol hotel-jatetxean bazkalduko dute. Buelako bidean geldialdia egingo dute, irteeran zehar erabakiko duten tokiren batean.

Txartelen salmenta ekainaren 6an egingo da Babeslekuan, 16:00etatik 18:00etara. Txartela erosi eta gero baja ematen duenak frogagiria aurkeztu beharko du. Autobus bat baino gehiago betetzeko adina izen-emate badaude, bigarren autobusa antolatzeko, gutxienez, 25 lagun apuntatu behar dira. Autobuseko eserlekuak erabakitzeke zozketa egingo du antolakuntzak.

#### Galiziako bidaia guztientzat irekia

Aurreko Karkaran Babeslekuak irailerako antolatu duen Galiziarako bidaiaren berri eman genuen. Bertan, izen-ematea babeslekuko bazkideentzat bakarrik zela aipatzen zen. Antolakuntzak adierazi duenez, edozein herritarrentzat ireki dute izen-ematea, baita Oriotik kanpo bizi diren herritarrentzat ere.

## Politika

### Ainara Manterolaren Oiartzun futbol taldeak maila galdu du



Oiartzun futbol taldea Bigarren Mailara jaitsi zen maiatzaren 21ean, Zaragozaren aurka 0-2 galdu ostean. Azken hilabetetan lesionatuta egon bada ere, Ainara Manterola futbol jokalaria oriotarrak jokatzen du Oiartzunen. Taldeak beharrezkoa zuen garaipena mailari eusteko, baina azken partida galdu egin zuten eta 15. postuan amaitu zuen liga Oiartzun taldeak. *Mila esker gure ondoan egon zareten guztioi. Egun bat gutxiago gelditzen da berriro ere 1.Mailan jokatzeke. Aupa neskak!* mezua zabaldu zuten sare sozialetan partida amaitu ondoren.

## Kirola

### 3x3 eta tenis futbol txapelketa

Futbol txiki eta futbol-tenis txapelketak antolatu ditu Zaraguetak sanpedroetarako. Ekainaren 30ean egingo dira futbol zelaian eta izen-ematea irekia dago. 3x3 txapelketan LH1etik DBH4rako gazteek parte hartu dezakete, 4 pertsonako taldetan. Zelaian 3 jokalarik egongo dira talde bakoitzetik, atezainik gabe eta nahi adina aldaketa egin ditzakete. 10 minutuko partidak jokatuko dituzte eta bi multzotan banatuko dira taldeak. Multzo bakoitzeko talde guztiek lau partida jokatuko dituzte, eta multzoko lehen bi sailkatuek jokatuko dituzte final-erdiak eta finala.

Futbol-tenis txapelketan 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena. 3 pertsonako taldetan jokatuko dira partidak eta, tenisean bezala, zelaia bi zatitan banatuta egongo da eta batetik bestera bota beharko dute pilota parte-hartzaileek. Eskuekin izan ezik, gorputzeko atal guztiekin ukitu daiteke baloia. Lau multzo osatuko dituzte, eta bakoitzeko talde guztiek lau partida jokatuko dituzte. Multzoko lehen bi sailkatuek haien artean jokatuko dituzte final laurdenak, erdiak eta finala.

Izen-emate epea maiatzaren 31ra arte egongo da irekita. Parte hartu nahi duenak Karelana, Zaraguetan eta Mendibeltzen eman dezake izena. Hauek dira izen-emate prezioak: 3x3 txapelketan 4€ jokalariko eta futbol-tenis txapelketan 5€ jokalariko.

## Kultura

### San Juan bezperan dantza egiteko izen-ematea ekainaren 8an

Urtero bezala San Joan bezperan sorgin gaua antolatu du Harribil Dantza Taldeak. Bertan parte-hartu eta dantza egin nahi duten gaztetxoek ekainaren 8an, ostegunean, eman beharko dute izena 18:30ean Kosta Tailerlean.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

■ Orioko familia euskalduna alokairu bila herrian bertan. Gutxienez bi logela. Tf: 635201600

■ 3 logelatako eta garajedun Babes Ofizialeko etxea alokatzen dut Andatza auzoan. Tfnoa: 660893220

■ Hizkuntza irakasle ohi erretiratua naiz, Erresuma Batukoa, eta familia dut Aian. Gela bat edo estudio txiki bat alokatu nahiko nuke Orion edo Zarautzen 2017ko irailetik 2018ko ekainera bitartean. Prest egongo nintzateke ingeleseko eskolak/mintzapraktika eskaintzeko alokairuaren zati baten truke. Harremanetan jartzeko deitu nire alaba Jenny Rossi: 697 258 509. Ekainaren 10etik 15era ni ere egongo naiz Aian, beraz, elkar ezagutzeko aukera egongo da egun horietan.

■ 25m2.ko garaje itxia alokatzen dut Itur-bide kaleko aldapan. Tf: 943830744 Helbide elektronikoa:

garbichile@gmail.com  
 ■ Loft edo gela bat alokatzeko interesa dut Orion. Inguruko herriren batean bada ere, primeran. Latifa Mejat Tf: 674811827

■ Apartamentua alokagai Orion. Gela bat, altzariekin. Tf: 648614769

**Lan eskaintza**

■ Tabernaria behar da egunero lan egiteko, euskalduna izatea ezinbeste-

koa. Tf: 639729981

■ Salatxo tabernan zerbitzari bila gabiltza, egunero lan egiteko ekainetik aurrera. Euskalduna izatea eta esperientzia edukitzea ezinbestekoa. Tf: 943 83 24 73 eta 608 77 49 54

■ 5 urteko neska zaintzeko pertsona behar da Ekaineko erdialdetik Irailiko erdialdera, goizetik eguardira. Pertsona horrek arduratsua eta euskalduna izan behar du. Berdin zaigu ume gehiago bere kargu baditu. Telf: 605701772

■ Bi neska txiki arratsaldeetan zaintzeko emakumea behar da. Emakume horrek 35-50 urte artekoa, arduratsua, alai eta euskalduna izan behar du. Kotxea eta disponibilitatea izan behar ditu. Udaran ere lan egingo du. Epe luzerako lana da. Interesatuak telefono honetara deitu: 655729050

**Lan eskaera**

■ 34 urteko Neska euskaldun eta arduratsua naiz, arratsaldez haurrak zaindu, etxeko lanak edo eta partikularrak emateko prest, (asteleheneetik, ostiralera). Tf: 659321326

■ 18 urteko neska udan umeak zaintzeko prest. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 688872903

■ 19 urteko neska euskaldun bat eskaintzen da udan haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu telefono honetara: 671960750

■ Emakumea lan bila, barnekoa, kanpoko edo gaeuz. Haur edo zaharren zaintzetan edo garbiketetan lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziekin. Tf: 600390347 -Katy-

■ Karmele, 50 urteko euskalduna umeak zaintzeko lan bila. Tf: 687200368

■ Umeak zaintzeko eskaintzen da emakume bat. Esperientziaduna Tf: 664156444

■ Neska lan bila zaharren zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 674123293

■ Ordukako lan bila dabilen mutila naiz. Garbiketetan eta helduen zaintzan. Tf: 603644555

■ Asteburuetarako lan bila nabilen neska naiz. Helduen zaintzan zein garbiketetan lan egin dezaket eta paperak ditut. Tf: 663117579

**Salgai**

■ Mobile homa saltzen edo alokatzen da Bañiases kanpinean, Santo Domingo de la Calzada herrian -Errioxa-. Tf: 649346893 -Eli-.

**ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	10:56 eta 23:21	4:29 eta 16:51	
02	12:09 eta	5:38 eta 18:02	
03	0:34 eta 13:19	6:48 eta 19:12	
04	1:41 eta 14:18	7:50 eta 20:13	
05	2:38 eta 15:07	8:42 eta 21:03	
06	3:25 eta 15:48	9:25 eta 21:46	
07	4:05 eta 16:25	10:03 eta 22:24	
08	4:42 eta 16:59	10:39 eta 23:01	
09	5:16 eta 17:32	11:14 eta 23:36	
10	5:50 eta 18:05	11:48 eta	
11	6:24 eta 18:39	0:12 eta 12:23	
12	6:59 eta 19:13	0:48 eta 12:59	
13	7:35 eta 19:49	1:25 eta 13:36	
14	8:13 eta 20:29	2:04 eta 14:15	
15	8:56 eta 21:14	2:47 eta 14:59	
16	9:46 eta 22:07	3:35 eta 15:51	
17	10:45 eta 23:10	4:31 eta 16:51	
18	11:52 eta	5:33 eta 17:58	
19	0:19 eta 13:00	6:39 eta 19:05	
20	1:27 eta 14:04	7:42 eta 20:09	
21	2:30 eta 15:01	8:40 eta 21:07	
22	3:27 eta 15:55	9:34 eta 22:01	
23	4:20 eta 16:45	10:25 eta 22:53	
24	5:11 eta 17:34	11:14 eta 23:43	
25	6:01 eta 18:23	12:02 eta	
26	6:50 eta 19:11	0:33 eta 12:50	
27	7:40 eta 20:00	1:22 eta 13:39	
28	8:30 eta 20:51	2:12 eta 14:28	
29	9:23 eta 21:45	3:04 eta 15:21	
30	10:20 eta 22:44	3:59 eta 16:17	

**ZAINZAKO BOTIKAK**

EKAINA:

- 1ean, Izpizua
- 2an, Zulaika
- 3an eta 4an, Etxeberria
- 5ean, Iriarte
- 6an, Lasa
- 7an, Izpizua
- 8an, Zulaika
- 9an, Etxeberria
- 10ean eta 11n, Larrañaga
- 12an, Gallo
- 13an, Izpizua
- 14an, Etxeberria
- 15ean, Iriarte
- 16an, Larrañaga
- 17an eta 18an, Esparza
- 19an, Lasa
- 20an, Gallo
- 21ean, Iriarte
- 22an, Lasa
- 23an, Esparza
- 24 eta 25, Mutiozabal
- 26tik 28ra, Lasa
- 29an, Gallo
- 30ean, Lasa

- **Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **Gallo:** Zigorria kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- **Esparza:** Santuturri plaza, 5. 943 50 47 83 Zarautz

KOMIKIA



Orio

Gure Esku Dago

■ Ekainaren 1ean, herri galdeketa ar-gazki emanaldia 19:00etan Kultur Etxean.

Liburu aurkezpena

■ Ekainaren 2an, Surfilaria eta paradisia liburuaren aurkezpena, Ibon Gaztañazpi eta Iñigo Fernandezek eskutik, 19:30etan Kultur Etxean.

Garagardo azoka

■ Ekainaren 2tik 4ra Garagardo azoka herriko plazan Orio AEk antolatuta.

Ikastetxeetako jaiak

■ Ekainaren 3an, Zaragueta eskolaren jaiak, goiz eta arratsaldez.  
 ■ Ekainaren 11n, Ikastolaren jaiak goiz eta arratsaldez.

Erakusketa

■ Ekainaren 5etik 9ra Kilometroak erakusketa Ikastolen Elkartearen eskutik Kultur Etxean.

Anibarko Portuko festak

■ Ekainaren 9an: 19:00etan txupinazoa, buruhandiak eta kalejira trikitilariekin. 20:00etan trikipotea Ostolaza eta Narbaizarekin.

■ Ekainaren 10ean: 10:00etan, diana trikitixarekin. 11:00etan, puzgarriak, apar festa eta haur jolasak. 11:30ean, jubilatuen hamaiketako Kaiua tabernan. 12:00etan Sardina jana eta sagardoa txotxean. 12:30ean, tortila patata lehia-keta eta dastaketa. 15:30ean, mus txapelketa. 17:00etan haur jolasak, puzgarriak eta txokolate-jana. 19:00etan plaza-dantza Xoxote bandarekin. 21:30ean auzokoan afaria, bertso kantuz alaituta. 23:00etan Xabi Arostegi DJa.

Musika

■ Ekainaren 9an, Arrutiko Intxaurrek bakarlaria 22:30ean Kultur Etxean.  
 ■ Ekainaren 14tik 22ra Musika Eskolako ikasleen entzunaldiak. Batzuk musika eskolan izango dira eta beste batzuk Kultur Etxean edo Salatxo aretoan.

San Joan bezpera

■ Ekainaren 23an, Sorgin gaua 21:30ean Harribilek eskutik. Dantza egiteko izen ematea ekainaren 8an, 18:30ean, Kosta Tailerlean.

Traste zaharrak

■ Ekainaren 14an eta 28an, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

Bizitzaldiak

■ Ekainaren 8an, Joseba Tapiaren hi-

tzaldia 19:00etan Etxeluzen: *Larreko eskolatik: trikitixarekin gozatzeko apunteak.*

■ Ekainaren 15ean, Estitxu Fernandez Maritxalarren hitzaldia, 19:00etan Etxeluzen: *Bizitzaren hasiera. gure erditzearen jabe.*

■ Ekainaren 22an haurrentzat txokolata eta jolas osasuntsuak, 17:00etan Etxeluzen. Ondoren, kalejira herrira.

Aia

Andatza-Aia auto igoera

■ Ekainaren 3an, X. Andatza-Aia auto igoera.

Auzoetako jaiak

■ Ekainaren 24an San Joan jaiak Iturrioren.  
 ■ Ekainaren 29an Andatza eta Elkano auzoetan San Pedro jaiak

Erromeria Aristerrazun

■ Maiatzaren 28ean, erromeria Aristerrazun Astiazaran II eta Andonegi trikitilariekin, 18:30etik 21:30era.

Podologia

■ Ekainaren 24an podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb. Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
 Tel. 943 575 361

**oinarri**  
 PODOLOGIA ZENTROA

**2GURPIL**

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)  
 T 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

